

PEDRO H. SARRIONANDIA
GARAITIK MAROKORA ETA ITZULERIA
DURANGO PUDO SER DETROIT
ZORNOTZAKO BATAILA
LA EDAD DE ORO DEL CASERIO VASCO

astola

ikerketa eta historia

DURANGALDEKO URTEKARIA

6.zk 2012 5€





01.



02.




03.



04.



05.



Astola 6.zk | 2012ko urria

Astola iritzi orori zabalik dagoen aldizkaria da, horrek ez du esan nahi artikuluen sinatzaileekin bat datorrenik.

Erredakzioa, publizitatea eta administraritza: Gerediaga Elkarte, Larrasoloeta, 3 48200 Durango, Tel. 94 681 80 66, Faxa: 94 621 80 23, e-mail: gerediaga@durangokoazoka.com, www.gerediaga.com • **Koordinatzailea:** Txelu Angoitia • **Erredakzio kontseilua:** Jose Mari Uriarte, Jon Irazabal, Izaskun Ellakuriaga, Nerea Mujika • **Argazkia:** Txelu Angoitia • **Publizitatea eta administraritza:** Aitziber Atorrasagasti • **Dokumentazioa eta banaketa:** Esther Garcia, Esther Soto • **Diseinua eta maketazioa:** www.di-da.com • **Inprimategia:** Gertu koop. • **Lege gordailua:** SS-1525-07 • **ISSN:** 1888-234X

sumarioa



- 06-** LABURREAN **12-** DURANGO PUDO SER DETROIT / JUAN A. HERNANDEZ **26-** GARAITIK MAROKORA ETA ITZULERA / MOHAMED TAH-TAH **44-** ANARQUISTAS EN LA SEGUNDA REPÚBLICA / J. A. OROBIO-URRUTIA **56-** ESKUALDE BATEN MILA AURPEGI / NEREA MUJICA **66-** LA EDAD DE ORO DEL CASERIO / ALBERTO SANTANA **82** BARRUKO IBILBIDEAK **96-** 1212: LA INCORPORACIÓN DE DURANGO A BIZKAIA / IÑAKI G. CAMINO **114-** EITZAGA, ZALDIBARKO EKIALDE URRUNA / GAIZKA ZABARTE **126-** ARQUITECTURA FUNERARIA / J. A. BARRIO LOZA **140-** ELORRIOKO PLAZA / JOSE LUIS ARRUBARRENA **156-** ZORNOTZAKO BATAILA / ERREDAKZIO TALDEA

hitzaurrea

Aurten beteko dira 800 urte "Durangoko lurraldea" Bizkaien esku geratu zela. Gaztelako erregeak opari gisa eman zion lurraldea Diego Lopez Harokoari.

Astola urtekariaren ale honetan gertakari hura sakon aztertzeko helburua dugu, garai hartako erabakiak gure lurraldearen historia baldintzatu zuelako. Nolakoa izango ote zen gaur egun Durangaldea, Nafarroako erresumaren menpe jarraitu izan balu, eta Gaztelak Nafarroa armaz menperatu izan ez balu?

Tankera horretako galderen oihartzuna gure belarrietaraino helten da, XXI. mendeko herritarroonganaino, baina galdera horiek ez dute izango erantzun garbirik.

Aldizkari honetan beste gai batzuk plazaratzeko asmoa ere badugu. Esate baterako, eskualdearen gaur eguneko konfigurazioak, eta bertako erakundeek jartzen dituzten mugak. Eta gai honi loturik, beste kezka bat ere hartu nahiko genuke hizpide: nola lotu oreka, historiari begirunea gorderik eta gaur eguneko arazoak konpontzeko behar den askatasunari eutsiz?

Orain arte aipatutakoak gure proposamen batzuk baino ez dira. Orokorean, eztabaidea eta jakin-mina sustatzeko galderak egiten ditugu. Izan ere, kultura zalantzatik gertuago dago, egia osotik baino.

Eta, beharbada, jakin-mina izango da betiereko gaztetasunaren edabe miragarria. Beraz, egin dezagun zurrut, badezpada ere.

Este año se cumplen 800 años desde que “La Tierra de Durango” pasaba a formar parte de Bizkaia como regalo del rey castellano a Don Diego López de Haro.

En este número de Astola hemos querido profundizar en un acontecimiento, que marcaría la historia de esta tierra. ¿Cómo sería hoy en día Durangaldea si hubiese seguido formando parte del Reino de Navarra y éste no hubiese caído bajo las armas castellanas?

Preguntas cuyo eco llega hasta nuestros días, y que sin duda quedarán sin respuesta.

Hay otras cuestiones que también queremos lanzar desde la revista. Como la relativa a las distintas configuraciones de la comarca en la actualidad, y los diferentes límites que marcan las instituciones que aquí operan, y asociado a esta cuestión, ¿cómo lograr el necesario equilibrio entre el respeto a la historia y la libertad necesaria para resolver nuestros problemas de hoy?

Ésta es, parte de nuestra propuesta: Lanzar preguntas que estimulen el debate y las ganas de saber, porque probablemente, la cultura es mas amiga de la duda que de las certezas absolutas.

Quizá sea la curiosidad el verdadero elixir de la eterna juventud. Por si acaso, bebamos de él.



Arابio Jauregia, Elorrioko BBK-ko egoitza.



BETIDANIK
DURANGALDEAN

BBK =

LABURREAN

MUSIKA KIOSKOA | DURANGO



Ezkurdiko kioskoa 1902an eraiki zuten, herriko musika bandak kontzertuak eskain zitzan. Felix Sagastagoitia udaleko perituak eta Anastasio Erleagak eraiki zuten, aipatu urteko lanak San Antonio jaietarako bukatuz.

110. urteurrena dela eta, Durangoko Tabira musika bandak zenbait ekintza antolatu zituen maiatzeko; 10ean Iñaki Uriarte "Una arquitectura para la música" hitzaldia eman zuen eta 12an bandak kontzertua eskaini zuen Andres Granadosen zendaritzapean.

Argazkia: Jose Mari Uriarte

LANBIDE IKASTETXEA | DURANGO



Durangaldeko Lanbide Ikastetxeak 25 urte bete ditu aurretik. Gogora ezazue Durango Merinaldeko Man-komunitateak zuzentzen duela ikastetxea. Elorrión sortu eta 2001etik aurrera Durangon dauka bere egoitza. Urte hauetan 16 eta 18 urte bitarteko 1500 gaztek ikasi dute bertan. Urteurrena dela eta, berta-tik igarotako ikasle eta irakasleen gógoetak biltzen dituen bideo bat prestatu dute.

Argazkia: Txelu Angoitia

URTE OPAROA FOLKLORERAKO | DURANGALDEA 📸



Aurten folklorearen esparruak ospakizun-urtea izan du. Kriskitinek 25. urteurrena ospatzeko, hairbat ekintza burutu ditu urtean zehar: erakusketa, dantza saioa eta abar. Bestalde, Berrizko San Lorenzo dantza taldeak 60 urre bete ditu, eta abuztuaren 12an urteurrena gogoratzeko zenbait ekitaldi izan zituzten elizate hartan. Horrez gain, 2012. urre honetan Tronperrik 50. urteurreneko azken ekitaldiak antolatu ditu.

Argazkiak: Txelu Angoitia




ITURRIZA | BERRIZ

Apirilaren 29an, Berrizko udalak eta Gerediaga elkarteaek Juan Ramon Iturriza historiagilea gogoratu zuten bere heriotzaren 200. urteurrena zela eta . Iturriza 1741. urtean jaio zen Berrizen eta 1812an hil zen Munitibarren. Bizkaiko historiari buruz idatzi zuen lehenengoetakoia izan zen. Horrez gain, hainbat eta hainbat artxibo publiko eta pribatu arakatu eta ordenatu zituen.

Omenaldi egunean udaletxearen aurreko lorategian Gernikako arbolaren kimubat landatu eta plaka bat jarri zuten bere omenez. Era berean, udaletxean era-kusketa zabaldzu zuten, bere eskuizkribuak ikusgai jartzeko. Jarraian, eta agintarien hitzak entzun ondoren, Aingeru Zabalak (Bizkaiko Foru Aldundiko artxibozainak) Iturriaren bizitza eta lana gorajpatu zituen. Urteurrena dela eta, Jon Irazabalek Juan Ramon Iturriaren bizitzari eta lanari buruzko liburuxka kaleratu zuen.

Argazkia: Txelu Angoitia






Gerraren 75. urteurrena dela eta Durangaldeko hainbat herritan oroimen-ekitaldiak burutu dira. Durangon Udalak, Kriskitinek, Berbarok eta Gere-diaga elkartea, urtero lez, gerra eta bombardaketa gogoratu zitzuten, ekitaldi ugari burutuz. Ohiko ekitaldiez gain, saio berriak ere izan ziren, aipatutako taldeean nahiz beste hainbat elkartea eta kolektiboren eskuak. Aurtengo "Zilar astea"k gerra izan zuen ardatz.

Gerediagak bultzaturik, Jon Irazabalen "Gerra Zibila Durangaldean" liburua kaleratu zen. Pablo Garitao-nandiak 80ko hamarkadan Jesus Mari Arruabarren-nak zuzendu eta Gerediagak ekoitztakoa "Durangoko bombardaketa" dokumentala berreskuratu zuen, eta Santa Susanako elizan Txelu Angoitiak eta Elena Solatik prestatutako "M31 (in memoriam)" instalazioa ikusgai izan zen.



Durango ez zen izan oroimenari eutsi zion herri bakarra. Otxandiok, urtero bezala, uztailaren 22ko bombardaketan hildakoak omendu zituen. Mañariarek gerran eta gerra ostean bertako herriarrek izandako sufrimendua goraipatu zuten maiatzean, euren omenezko plaka bat jarriz udaletxearen sarreran. Berriz, Zaldibar eta Abadiñoko zenbait taldek ere gogoan izan zitzuten garai hartako gertakariak.

Argazkiak: Txelu Angoitia



2012

azaroak 26 - abenduak 1

BILBAO-BIZKAIA
NAZIOARTEKO
KANTU
LEHIAKETA

26 noviembre - 1 diciembre

CONCURSO
INTERNACIONAL
DE CANTO
BILBAO-BIZKAIA

november 26 - december 1

BILBAO-BIZKAIA
INTERNATIONAL
SINGING
COMPETITION

26 novembre - 1 décembre


CONCOURS
INTERNATIONAL
DE CHANT
BILBAO-BIZKAIA

FINAL

abenduak 1 diciembre
EUSKALDUNA JAUREGIA
20:00etan

TXIRRI, MIRRITXIRIBITON

GABONETAN ERE BARREZ



Abenduak 22 BILBO
Abenduak 23 BILBO
Abenduak 24 ERANDI
Abenduak 27 BARAKALDO
Abenduak 28 ZALLA

Abenduak 29 BASAURT
Abenduak 30 LETOA
Urrasotak 3 GORELANA
Urrasotak 4 MUNGIA
Urrasotak 4 JOORRE

Cuando Durango pudo



ser Detroit

TEXTO: JUAN A. HERNANDEZ
FOTOS: TXELU ANGOITIA



Renault, Ford, Volkswagen...y la duranguesa Dyesa. ¿Historia ficción? ¿Una fanfarronada lanzada al calor de una animada sobremesa tal vez? No. Hubo un momento, allá por mediados de la pasada centuria, en que el proyecto de un empresario local estuvo a punto de dar como fruto una fábrica de automóviles que diseñaría y produciría vehículos absolutamente autóctonos. Un sueño que, de haberse convertido en realidad, pudo haber convertido al Duranguesado en una pequeña Detroit, la ciudad que aglutina a los gigantes de las cuatro ruedas estadounidenses. Esta es la historia de lo que pudo ser y no fue; un proyecto industrial que estuvo a punto de cambiar, quizás, nuestra historia y modo de vida durante las últimas décadas.







En Urkiola

Todo empezó a nacer en la mente y las manos de José Estancona Acha, empresario local (hoy en día le llamaríamos ‘emprendedor’) fundador de Duñaiturria y Estancona S.A. (DyE), factoría fundamental en el sector de la máquina-herramienta vasca. Era uno de aquellos hombres de empresa de la vieja escuela, de los que aprendieron su oficio manchándose las manos en un taller antes de poner en marcha su propio negocio.

Corría el año 1948, tan solo nueve años después de finalizada la Guerra Civil, en un país que no había ni mucho menos cerrado las heridas –humanas pero también económicas- causadas por la contienda. José quería tener un coche para llevar a su familia de excursión, pero no podía adquirir uno. ¿La solución? Fabricarlo.

Ni corto ni perezoso, diseñó las líneas maestras de aquel vehículo, dibujándolas en un papel cuya sombra se proyectaba luego sobre la pared. Las cuatro plazas de aquel coche eran suficientes para el matrimonio y sus cinco

hijos pudieran subir hasta Urkiola. Dicen, además, que lo hacía con bastante soltura y que sus ocupantes no sufrieron contratiempos dignos de mención en aquellos primeros trayectos.

¿Cómo fue posible aquel pequeño milagro? “Entonces no tenían miedo”, relata Iñaki, hijo del fundador de la empresa y que aún trabaja en las instalaciones de CMI, heredera de la antigua DyE, en el barrio durangués de San Fausto. “Ahora el problema es que todo cuesta un montón de dinero, entonces costaba un montón de trabajo, pero las horas de trabajo no estaban valoradas. Se trabajaba a destajo fuera de horas, después de haber trabajado 10 o 12 horas, pues tres o cuatro más”, explica este miembro de la segunda generación familiar al mando de la factoría.

Por su edad (nació en 1950) es difícil que Iñaki recuerde aquellas primeras ascensiones a Urkiola, ni mucho menos algunas de las vicisitudes a las que tuvo que hacer frente su padre para construir su prototipo y que, desde nuestra

globalizada perspectiva de habitantes del siglo XXI, nos parecen anécdotas en blanco y negro sacadas de alguna película de Berlanga.

Aquel primer coche, sin ir más lejos, no tenía matrícula oficial debido a diversas trabas burocráticas y en su placa se podía leer simplemente la palabra 'Durango'. No sabemos cuál debió la reacción de los agentes del orden al verlo circular, pero imaginamos que si era posible subir un puerto de montaña con un coche fabricado en casa y siete almas en su interior, el resto no debió suponer ningún obstáculo insalvable. La pertinente autorización, eso sí, llegó finalmente en 1951 de la mano de la Delegación de Industria en forma de flamante matrícula: BI-17271.



EL DÉCIMO DE ARTABILLA



Hijo menor de diez hermanos, José Estancona Acha nació en el caserío de Artabilla de Durango. Su hermano, 26 años mayor, tenía su propio taller en el que el benjamín trasteaba ya desde niño mientras aprendía los secretos de la mecánica. "Cuando le veía por allí, su hermano mayor le mandaba a la escuela a estudiar", dice su hijo Iñaki recordando los primeros pasos de su padre entre máquinas y herramientas.

Al término de la Guerra Civil, fundó Duñaiturria y Estancona S.A. (DYE), una empresa de máquina herramienta que con el paso de los años se situó entre las más avanzadas de Europa en su sector, hasta convertirse en proveedor de gigantes de la aeronáutica como Boeing o del Consorcio Espacial Europeo.



Los tres diferentes modelos fabricados por Estancona.



 Vehículo conservado por la familia Estancona

Puestos a imaginar, podemos intentar colocarnos en la piel de Don José y tratar de hacernos una idea de lo que pasó por su cabeza durante aquellos momentos. Tal vez pensara: "si puedo fabricar un coche que funciona en mi taller, ¿por qué no podría fabricar unas cuantas decenas de miles de coches?" Pasar de la historia-ficción a la psicología-ficción puede resultar excesivamente atrevido y exceder las posibilidades de este reportaje, pero lo cierto es que ese fue precisamente el camino que tomó el osado fabricante. Efectivamente, tenía que intentarlo. Iba a montar una factoría para poder producir unas cuantas decenas de miles de vehículos al año. En esta ocasión, sin embargo, el camino presentaba más dificultades que las empinadas cuestas del Alto de Urkiola.

Habían pasado tres años desde que el primer prototipo saliera del taller y José Estancona decidió acometer

la primera fase de su sueño fabricando tres vehículos más, dos turismos y una furgoneta capaz de transportar 300 kilos de carga, un peso nada desdeñable para la época. En una economía asfixiada y condenada a la autarquía, resulta difícil concebir la magnitud del reto si no fuera porque la escasez de medios ha sido siempre uno de los mayores estímulos de la inventiva humana. "Eran unos tiempos en que muchas cosas se conseguían incluso de estraperlo", explica su hijo Iñaki. Aunque sea complicado atestiguarlo de manera fehaciente, parece que aquel fue el origen de parte del metal empleado en las carrocerías de los nuevos modelos. Muchas horas de trabajo y un millón y medio de pesetas después de obtenida la escasa materia prima, los tres vehículos lucían (esta vez sí) matrículas de curso legal, concretamente BI-145 y BI.308 para los turismos y BI-198 para la furgoneta.

Esta vez los tres vehículos no se detendrían junto al Santuario de Urkiola. Su destino estaba varios cientos de kilómetros más al sur, al final de un camino sin autovías de dos carriles en cada sentido ni áreas de servicio con pinchos de tortilla a precio de caviar del Caspio en sus vitrinas. Si todos los caminos de las antiguas calzadas llevaban a Roma, en aquella época todos los caminos para poner en marcha un proyecto de este tipo llevaban a Madrid, más concretamente al Palacio del Pardo, residencia oficial de Francisco Franco, que a pesar de no ser experto en automoción era Caudillo de España por la Gracia de Dios. Convencerle de las bondades del proyecto y lograr su visto bueno era condición ineludible para que el sueño echara a andar.

El largo trayecto debió brindar a José Estancona tiempo suficiente para pensar en los pormenores de su idea. En

el lado positivo, ya tenía atada la financiación necesaria, nada menos que 49 millones de pesetas que se había comprometido a aportar el banquero Juan March, una de las grandes fortunas de la época y cuya familia sigue hoy en día ligada al negocio bancario. “[March] se había enterado del proyecto antes que nadie, llamó a mi padre y le dijo que tendría ayuda financiera y que no aceptaría dinero de otros. Él pondría el capital necesario pero no quería más socios”, recuerda su hijo, repitiendo la historia que a buen seguro habrá sido protagonista de un buen número de tertulias familiares. Lo que en principio parecía una fortaleza del proyecto pudo, sin embargo, convertirse en un problema al llegar la noticia hasta los oídos de la camarilla que rodeaba al Jefe del Estado, donde una idea de este calibre se veía como una oportunidad de medrar si se sabía apostar por el caballo ganador.



Iñaki, hijo de José Estancona

Tras varios días de espera, Franco recibió a la comitiva y a sus tres coches, y su chófer personal los condujo por los alrededores de su residencia. Todo iba (nunca mejor dicho) sobre ruedas, ya que el anfitrión se mostró gratamente sorprendido por lo que estaba viendo, satisfacción que se convirtió en una declaración de "interés nacional" para el proyecto. ¿Saldría todo adelante? ¿Podría José Estancona levantar la factoría en los terrenos de Amorebieta-Etxano que ya tenía apalabrados? ¿Conseguiría su objetivo de fabricar 10.000 unidades anuales? Con un proyecto industrial sólido, empresas auxiliares dispuesta a implicarse en la causa, financiación asegurada y toneladas de ilusión garantizadas, todo parecía indicar que sí.

Las cosas, sin embargo, comenzaron torcerse cuando mejor pintaba la cosa. "Unos cuantos ministros y el propio

hermano de Franco le dijeron a mi padre: Eso está muy bien, ¿por qué no montamos una sociedad? Pero mi padre les respondió que no era necesario, porque ya tenía financiación", continúa relatando su hijo. Aunque no hay forma de documentar si aquella negativa influyó en el devenir de los hechos, la cuestión es que las buenas palabras iniciales se fueron convirtiendo en papel mojado según los visitantes del norte se alejaban del Palacio del Pardo.

En poco tiempo, varias empresas y asociaciones empresariales con intereses en el sector automovilístico decidieron impugnar el proyecto, unas alegando que las máquinas que Estancona quería importar para su factoría entraba en competencia con otros fabricantes nacionales y otras poniendo en duda la propia viabilidad del proyecto por la incapacidad del mercado para absorber tamaña





producción. Las denegaciones de permisos de apertura se sucedieron al mismo tiempo que el empresario presentaba alegaciones, recordando por ejemplo que más de 5.000 vehículos de importación habían sido sorteados entre compradores con suficiente poder adquisitivo sin llegar a cubrir toda la demanda existente. La Administración, sin embargo, decidió primar otros dos proyectos: el de Fasa-Renault en Palencia y el de la Sociedad Española de Automóviles de Turismo, más conocida como Seat.

La batalla legal duró tres años, desde 1955 hasta 1958, y José Estancona intentó incluso relanzar el proyecto con tres nuevos prototipos, animado por el repentino interés de la Diputación de Navarra, que llegó a ofrecerle 300.000 metros cuadrados de terreno para levantar la fábrica. Todo fue en balde, porque una vez más los ansiados permisos no llegaron.

De los tres vehículos que viajaron hasta la residencia de Franco, uno de ellos, apodado como Pájaro Azul por el color de su carrocería, se convirtió en el coche personal del dueño de DyE y fue utilizado por sus hijos hasta finales de los 60.

Hoy en día miles de coches suben cada año el puerto de Urkiola, pero son de otras marcas.



UNA ESPECIE DE MORRIS A LA DURANGUESA

6 litros a los 100 kilómetros, 15 CV y 80 kilómetros/hora de velocidad punta. Todo por unas 35.000 pesetas de 1948. El primer microcoche (medía poco más de tres metros de largo) fabricado por José Estancona en su taller durangués tenía unas características técnicas únicas, casi tanto como lo limitado de su producción, ya que de aquel taller solo llegó a salir una unidad de aquel modelo, El DYESA (acrónimo de Duñaiturria y Estancona S.A.).

Sus faros redondos separados de la carrocería, sus generosos guardabarros y el en apariencia desproporcionado tamaño de su morro nos transportan mentalmente a otra época de la historia de la automoción. Dejando volar la



imaginación, no cuesta situar el coche en una película de gángsters ambientada en la época de la Gran Depresión norteamericana, con un individuo malencarado a su volante trasnportando un estuche de violín en el asiento del copiloto.

Sus herederos fueron tres nuevos prototipos, los dos turismos y una furgoneta que su constructor presentó a las autoridades en Madrid como prueba rodante de la viabilidad de su proyecto a comienzos de los años 50 del pasado siglo. La prensa bautizó al turismo casi de inmediato con el sobrenombre de 'Topolino' y hubo quien sin perder tiempo le buscó similitudes con el Morris, otro coche británico de gran aceptación en aquellos tiempos. Bautizados con la marca J.E.A. (las iniciales de empresario), el perfil de aquellos no parece coincidir con el de sus supuestos hermanos anglosajones, pero se puede entender aquella comparación como un piropo para un vehículo proyectado y fábricado íntegramente a las faldas del Anboto.

Los últimos tres miembros de esta familia, construidos a finales de la misma década, lucían la marca Joesa y vieron reducida su cilindrada hasta los 650 cc para evitar el pago del Impuesto de Lujo. Su precio estimado: 56.000 pesetas, unas 14.000 menos que un Seat 600 de la época. Todo con ingenio 'Made in Durangaldea'. **a**



Juan A. Hernandez

Periodista



Gestamp
Production
System



BIZKAIA



Garapen
Proiektuak
Sortzen



Bizkaia Energia

Polígono Industrial de Boroa
Insula Al-1
48340 Amorebieta-Etxano
Tel: 94 6301150
Fax: 94 6309333
bizkaia@bizkaiaenergia.com





METALURGIA IKERKETA ZENTROA

UN EQUIPO DE PERSONAS

COMPROMETIDO CON LA SOCIEDAD Y EL MEDIO AMBIENTE,
CREANDO CONOCIMIENTO Y APOYANDO EL DESARROLLO
DEL TEJIDO INDUSTRIAL



Aliendalde Auzunea, nº 6
Tel. 94 6215470
www.azterlan.es

48200 Durango (Bizkaia)
Fax. 94 6215471
azterlan@azterlan.es



Garaikit Marokora eta itzulera

Pedro H. Sarrionandia (1865-1913)

TESTUA: MOHAMED TAH-TAH

Istripu tonto bat izango zen akaso. Fraidea, Durangotik Zornotzarako tranbiako bagoitik jausi eta, larri zauritua, laster hil zen Larreako komentuan 1913ko abuztuaren 5ean. Istripuaren inguruko berririk ez zen prentsan agertu egun haietan eta, harrezkeroko ia mende betean ere, ez da publikatu izan fraide haren heriotzaren edo bizitzaren aipamenik.

Historia zabortegi bat dela esaten zuen Walter Benjaminek, zaborra bezala enterratzen dela jendea, galtzen direla objektuak eta ahazten direla gertaerak. Eta hala, zarama eta hondakinen artean arakatzen duenak, gero, harribitxi bat topatzet duela lantzean behin. Harribitxia, edo bitxitzat har dezakeen zerbait. Eta halakotzat har daiteke Pedro H. Sarriónandiaren *Gramatica de la lengua rifeña* liburua, 1905 urtean argitaratu zena lehenengoz Tangerren.

Historia apur bat egiten ahaleginduko gara orduan, (historia den) zabortegitik objektua atera eta ahalik eta txukunen erakustea bada historia egitea.

GARAITIK TETUANERA

Pedro Hilarion Sarrionandia 1865eko urriaren 22an jaio zen Barrenkuatze baserrian, Garaiko Barrenku auzoan, Oizko mendi barrenean. Azken karlistada deitzen dena (azkenaurrekoa, 1936koa kontatzen bada) ezagutzea suertatu zitzaiion zazpi urtetatik hamar urtetara. Imajina daiteke ume baserritarren bizimodua egingo zuela, etxeko beharrak. Garaiko eskolara ere joango zen eta dotrinara. Hamabost urte bete arte, euskaraz besterik ez zuela egin idatziko zuen gero Pedro Hilarionek esko-

ketak bete, abadetu eta Marokoko misioetara bidali zuten. Hala ailegatu zen, 1892ko ekainean, uda bete -betean, Tangerrera eta Tetuanera, Bibliako ilustrazioen antzeko paisaietara, lur eremu eta palmondoen artera: medina fortifikatua, kale meheak, merkatuak, taberna arraoak, suge xarmatzaileak, juduen aljama, almuedanoaren deiadarrak...

Fraide frantziskanoek tradizio luzea zuten Afrika iparraldean. Frantzisko Asiskoak (Umbriakoak) ordena fundatu eta laster izan zituzten martiriak Marrakexen, 1221ean.



Barrenku Auzoa. Ezkerretik bigarrena, Pedro Hilarionaren "Barrenkuatze" baseria.

latik kanpo. Harik eta errekrutadorea agertu zen arte, (lurraren koloreko) tunika kapusaidun fraide frantziskanoa, umeak komentura eramateko misioarekin.

Ume baserritarrek ez zuten irtenbide asko sasoi hartan. Etxean geratzeko jabegai bakarra nahikoa izanda, besteak joangai ziren, kalera edo Ameriketara. Fraide sartzea ere lekutara alde egiteko beste modu bat zen, emigrazio forma bat zen teknikoki. Pedro Hilarion, hamabost urterekin, Santiago de Compostelako kolegio frantziskanora eta, handik hara, Chipionako Nuestra Señora de Regla misionisten ikastetxe berrira. Ika-

Kristau komunitate txikiak bisitatzen ibiltzen ziren, europar merkatariekin harremanetan eta batez ere pirata berberiskoen gatibu kristauei espiritualki eta materialki laguntzen, Marokoko sultanan lurralte haitan alde batetik bestera ibiltzeko dahir edo 'baimena' ematen baitzien. 1630 urteaz geroztik misio-etxe frantziskano finko bat zegoen Marokon eta, José Lerchundi 1862 urtean hara heldu zenetik, asko zabaldu zen misio hori.

Halako lorpen historikoak botere-jardunak izaten dira eta, Marokoko frantziskano espanolen presentzia ere, gudaldiaren ondorioa izan zen. 1859-1860ko kanpai-

nan, Leopoldo O'Donnellen espedizio militarra garaile sartu zen Tetuanera, hango hainbat etxe bota (bertako gogoa oinperatzeko) eta meskitak munizioa eta zaldiak gordetzeko erabili zituzten. Tetuango meskita nagusia katedral bihurtu zuten, Nuestra Señora de las Victorias izenarekin.

Moroen galera eta kristauen irabazia. Durangaldean ere ospatu zen Uad-Ras ordokiko bataila, eta Sultana-rekiko hitzarmena. Bere buruari Pantxillon deitzen zion batek, behintzat, hamahiru bertso inprimarazi zituen

Moroekiko hitzarmenarekin ados eta pozik zegoen Pantxillon bertsogilea, paperean bere izena aipatzen duela-ko (beste bertso batzuetan ere bere izena aipatzen zuelako dakigu ahorik aho egunok arte kantatu diren beste bertso batzuen autorea ere bera dela: "Bizkaiko bazter baten, Anboto partian...") bakarrik atera ahal dena historiaren zabortegitik. Laurehun miloi diru orduan. Eta kolegioak gainera misionistentzat.

Baina frantziskanoak ez ziren Marokora kolonizazioaren ondorioz heldu. Alderantziz, kolonizazio ejertzito

 Melilla 1893 urtean.



bela (baina tolestuak) eta arraun ontzi grabatuaren azpian: Moruen convenioco verso berriac Gualdraseco batallari Panchillonec atariac. 1860 urtea zen:

***"Aterazera noa
cantabat berria
nola acabatudan
moruen guerra
Odonell, jaunarequin
euren errengua
laureun milloegaitic
compondu ei dia."***

españolaren aitzindari gisa (eta halaxe gertatzen zela beti idatzi zuen Francesc Pi i Margallek, misionistik izaten zirela kolonizazioen aitzindariak). Artean, Europako estatuak munduaren punta batetik bestera bakoitzak zein zati harrapatu ari ziren, batez ere Afrikan, europar nazioen handitasuna konkistatzen eta menderatzen ('babesten' hitza erabiltzen zen, eufemismoa) zituzten herrien neurrikoa baitzen. XIX. mendearren azken hamarkadako Maroko ez zen benetako estatua, Men-debaldeko botereen eskuetan geroago eta lotuago zegoen txotxongilo bat baizik.

Pedro Hilarion de Sarrionandia
y Linaza En la Estación de Garay,
 a la provincia de Vizcaya, Obispado de Vizcaya,
 el diez de Octubre de mil ochocientos y sesenta y
 Jose Domingo cura-servidor de la parroquia
 bautizó solemnemente a un niño que nació a la
 media noche del dia precedente, hijo de
 Juan Martín de Sarrionandia y Doña Blanca

JOSE LERCHUNDI

Jose Lerchundi zen oraindik Marokoko Misioetako Prefektu Apostolikoa Pedro Hilarion Sarrionandia heldu zenean. 1836an sortua Orion, José Lerchundi hogeita hamar urte zeramatzen Marokon eta itzelezko eragin zuen. Frantziskotarrek benefiziazko lanak ugari egiten zituzten: etxe merkez osatutako auzoak eraiki, osasunaren aldeko ekimenak, ikastetxeak, pobrezantza-ko sukaldetako ('Pobre en Aita' deitzen zioten Jose Lerchundi). Harreman onak zituen, gainera, Mulei Hassan I sultanairekin, hau Marokoko errege izendatu zutenetik 1873 urtean eta, batez ere, sultanak Jose Lerchundi es-painiar enbaxadorearen itzultziale gisa ezagutu zuenetik 1882an. Harrigarria egin zitzaión sultanari Jose Lerchundi arabiera hain ondo berba egitea.

José Lerchundi, beste ofizio edo zeregin askoren artean, arabista zen. Arabiera ez da hizkuntza bakar bat: badiago arabiera klasiko sakratu bat, Koranekoak, eta badaude lekuak lekuko hizkuntzak edo berbaera idatzigabeak. Maroko arabiera arrunta, esate baterako, arabiera literarioarekiko oso desberdina da, baina ez da idazten

eta herri xehearen hizkera normala da. Jose Lertxundi, Maroko aldean mintzatzen zen arabiera ikasi eta era-kusten ahalegindu zen. Hainbat liburu idatzi zituen, eta lehenengoa hau izan zen: Rudimentos de árabe vulgar que se habla en el imperio de Marruecos. Ollendorff metodoaren kriterioekin prestatura, Marokoko arabiera arrunta ikasteko oinarrizko eskuliburua bilakatu da harrezkero. Beste liburu osagarri bat ere argitaratu zuen Jose Lerchundi: Vocabulario español-arábigo del dialecto de Marruecos.

Pedro H. Sarrionandia Marrokora heldu zenean, bida, Jose Lertxundik hizkuntza berbereak ikasteko eginbidea proposatu omen zion. Marokon gutxiengo batek baki-rik ezagutzen zuen arabiera klasikoa, arabiera arrunta hitz egiten zen herrialde batuetan eta hiri gehienetan, baina beste herrialde batuetan, mendi aldean batez ere, berbere edo tamazight hitz egiten zen, bertakoek tarifit edo xelha ere deitzen zuten hizkuntza. Alfabetorik, hizte-girik, gramatikarik gabeko hizkuntza zen, antzinatik mintzatzen dena Afrika iparralde osoan, Abisinia eta Nubiatik mendebaldeko itsasertzearaino, gune sakabanatutan eta mintzamolde desberdinatan.

Ez zegoen amazigeraz ia ezer idatzirik, eta amazigerari buruz beste hizkuntzatan ere oso gutxi. Frantsesa eta arabiera errepasatu behar izan zituen Pedro H. Sarrionandiak, frantsesa hizkera berberei buruz Aljerian argitaraturiko ikerketa apurraik irakurtzeko eta arabiera bertakoekin harremanak izan ahal izateko. Ez zen erraza izango, zerotik hasi eta, beste hizkuntza haren nondik norakoak harrapatzea:

"Zelan esaten da 'ni' erriferaz?" –kontatzen zuen gero fraidekide batek galduet zuela behin hasiera haitan.

"Chee" erantzun zion bertako batek.

"Eta zelan esaten da 'zu'?"

"Nech" erantzun zion.

'Ni' = chee, 'zu' = nech apuntatu omen zuen Pedro H. Sarrionandiak. Baino, chee = 'zu' zen nech = 'ni', izan

(ikuspegiaren araberakoak izaten baitira gauzak). Eta izenorde pertsonalak hala zaitzen bazitzaizkion, zelan antzeman eta antolatu, bestelako erreferentziarik gabe, esate baterako, aditzaren denborak...

BERBERE EDO AMAZIGERA

Berbere hitza ez da berberea. Berbere, barbaro hitzaren aldaera da, barbarotzat hartzen zutelako grekoek, latinoek, arabiarrek eta europar modernoek Afrika ipar-sortaldean bizi zen jende hori. Hau da, konkistatzaile eta kolonizatzaleek ezarritako izena zen berbere. Gaur egun, berbereek beste izen bat ere erabiltzen dute: amazigh (plurala, imazighen). Berbere izena onomatopeiatik bazetorren, berbaro ulergaitzaren soinutik, amazigh hitzak 'jende librea' edo 'jende noblea' esan



Barrenkuatze baseria. Txelu Angoitia.




Pedro Hilarion Sarrionandia, gaztea

nahi omen du. Hizkuntzaren izena, berriz, tamazight da, amazigh hitzaren femeninoa, arabieraz bezala amazigeraz hizkuntzak femeninotzat hartzen direla-ko, eta berba maskulinoa femenino bihurtzeko eskema hauxe da: t[...].t.

Ezagun da tamazight hori libieraren eta egipterra zaha-rraren ahaide dela. Gero, immigrazioek mugatu eta erroitzu dituzte hizkuntza horren guneak: VII mende-

ko arabiar konkistatzaileek, XI mendeko bedui-noek, XV mendean Andaluziatik itzulitako erre-fuxiatuek, eta azken mendeetako sultango eta imperialismoek. Gaur egun, Afrika iparraldeko espazio itzel horretan barreiaturik geografikoki (eta bazterturik sozialki), hogeiren bat dialektu hartzen dira haintzat. Zerrenda, sortaldetik men-debaldera, hau da: tasiwit hitz egiten da Siwako oasian, Egiptoko ipar-sartaldean; tawjilit egiten da Awjilako oasian, Libia sortaldean; tasoknit hitz egiten da Libian, Soknan; tanefusit egiten da Nefusan, Tripolitik hurbil; tajerbit da, Tunisi-an, Jerbako irlan; tamerzet egiten da Tunisia hegoaldean; taxawit edo xawi deitzen den dia-lektoa hitz egiten da Aures aldean, Tunisia sar-taldean eta Algeria sortaldean, hiru milioik hitz egingo dute taxawit gaur egun; takbailit edo 'kabiliera' hitz egiten da Kabilian, amazigeraren beste dialekto bat hiztun ugari dituena; Tamza-bit egiten da Saharako mortuko Mzab aldean, Algeria hegoaldean; teggargrent egiten da Uar-glan, Aljerian; tazenatit Tuat aldean; tamahak edo tamaxek hitz egiten dute tuaregek (Kel Tamaxek deitzen diote euren buruari, hau da, 'amazigeradunak'), horiek ere milioi batzuk dira gaur egun Libia, Algeria, Niger, Burkina Faso eta Maliko estatuei dagozkien espazio zabaletan; taznagt hitz egiten da Mederdra eta itsasoaren artean, Mauritanian, hiztun gutxirekin; trarza, Mauritanian; ta-xelhit hitz egiten da Marokoko hego-sartaldean; tamazight, Maroko erdialdean, Atlas mendien inguruan; eta tarifit hitz egiten da Arrifen.

Amazigera guztiak ahozko hizkuntzak izan dira orain artean, bakoitzaz bere bazterrekoak, hizkuntza zahar, zabal, sakabanatu, arau gramatikaldu gabearren formak direla jakin gabe.



Amazigerazko dialektoen guneak

Arrif aldeko jendea pezoz eta harriz eraikitako etxe umil sakabanatutan bizi zen. Laborantza zuten ogibidea gehienek, baina janaria ez zen oso ugaria izango. Gizek artelezko txilaba janzen zuten eta turbante zuria, kotoizkoa (oinetan, babutxak edo espartzuzko sandaliak). Emakumeek zetazko edo kotoizko alkandora eta galtza bonbatoxoak eramatzen zituzten (eta ortozik ibiltzen ziren sarritan). Islamean ohi denaren kontra, ez zuten aurpegia estaltzen eta, gainera, tatuia erritualak luzitzen zituzten kokotsean

edo bekokian. Heziketa, Korana ikastea zen. Mutikoek batzere, Koraneko bertsikuluak buruz ikasi behar izaten zituzten. Lege Koranikoaren arabera, gizonak lau emazte izan zitzakeen arren, Arrif aldeko gizonak monogamoak izaten ziren normalki (pobreak zirelako normalki, beharbada). Tributan edo kabilatan antolatuta zeuden, halako demokrazia primitiboarekin. Bizimodu gogorra zuten eta jende itxia eta mendekuzalea omen zen, arrumi edo 'kristaukiko mesfidantza zahar eta txarrarekin.

GRAMATIKA BERRIA

Pedro H. Sarrionandiak, mintzairak ikastea erabaki eta arrumi ('erromatar') horiekiko mesfidantzarekin egingo zuen topo berehala. Ez zitzaion erraza egingo, moroen errezeloa horiengatik, eta laguntzeko prest zeudenak ere gramatikarekiko argitasun handirik emateko gauza ez zirelako.

Jose Lertxundiz gainera, beste lagun batzuk izan zituen Pedro H. Sarrionandiak Tetuan eta Tangerren. Esate baterako, Julian Alkorta, Tetuango Misioko superiorria. Julian Alkorta Batiz, Etxanon jaioa zen 1865ean, Garaikoaren sorleku-kide eta adinkidea, Arsenio Martínez Camposen itzultzalea izan zen 1893ko Melillako gerra kanpainan. Arabiera oso ondo hitz egiten omen zuen eta Marokoko Misio Frantziskanoetako Komisarioa izango zen harik eta 1932an Tangerren hil arte. Ricardo Ruiz Orsatti ere lagun izan zuen, 1871n Tangerren jaioa, arabiera interpretea Tetuango Konsulatu Spainolean, baina Errusiako Inperioarentzat ere lan egiten zuen, drogman gisa. Lagun honek anekdota bat kontatuko zuen gero Mauritania aldzkariko artikuluan. Familia arrifi batek ume bat galdua zuen aspaldian eta, fraideak amazigeraz zekiela ikusirik, antzina galduetako umea zela uste izan zuten:

"...arrifera ondo hitz egitea lortu zuen (Pedro H. Sarrionandiak), eta behin gertatu zen, urteak geroago, Tangerren zegoela, Espiritu Santuko komentura heldu zela Arrifeko familia bat fraide amaziga erreklamatzena Eta zaila izan zen ama zahar hari sinestaraztea gizon hori kristaua zela, Spainian sortua, ez zela sortzez arrifia, hizkuntza ondo ikasia zuen arren."

1896an, Jose Lertxundi hil zenean, gogaide eta babesle nagusia desagertu zitzaion. Prefektu Apostoliko berriak ez zuen amazigera ikasteko batere beharrik ikusten. Urte batzuk bestelako zereginetan galdu ondoren, laguntzaile berriak agertu ziren: Eduardo Alvarez Ardanuy, gasteiztarra, Ejertzito espainoleko teniente koronela, Hamete ben Tuhami eta Arrifeko Tiratzaileen Erregimentuko beste arrifi batzuk. Pedro H. Sarrionandiak Tetuanen (Nuestra Señora de las Victorias komentuan), Melillan eta Tangerren jarraitu zuen beharrean.

Eta lan eskergaren ondoren, 1904ko udarako bukatuta zegoen gramatika. Urte bete berandutu zen Misio Katolikoaren moldiztegian, harik eta hurrengo abuztuan argitaratu arte: Gramática de la lengua rifeña. Arrifien hizkuntza, tarifit delakoa (*t[...]t*: arrifi > tarifit), alfabeto konbentzional espainola erabilirik azaltzen zen, Ollen-



● Ezkerretik esku maha: Gramatica de la lengua rifeña, 1905eko edizioa • Gramatica de la lengua rifeña, 1925eko edizioa • Contestación del P. Pedro H. Sarrionandia a Mr. René Basset, 1907 • Noticia sobre la lengua que se habla en el Rif, 1909.

dorf metodoaren araberako modu argi eta ikasteko praktikoan. Gramatika garrantzitsua zen hizkuntzalari-tzarentzat, glotologia kamitikoaren alorrean, eta filologia konparatuarentzat. Historialariantzat ere importantea zen (puzzlearen zati lez), Afrika iparraldeko antigoaleko populazioaren nondik norakoak aztertzeko.

Bestelako oihartzunak ere izan zituen. Aljeriatik, René Basset ikerlariak *Revue d' histoire et de littérature* aldizkarian komentario ez hain faboragarria argitaratu zuen, Frantziaren eta Espainiaren arteko lehiaren ezaugarri ziren prebentzioekin. Pedro H. Sarrionandiak 66 orrialdeko liburuxka argitaratu behar izan zuen ikerlari frantsesar erantzunez, hainbat puntu argitzeko: *Contestación del P. Pedro H. Sarrionandia a Mr. René Basset*.

Dena dela, gramatikaren oihartzun ozenak politikoak izan ziren (gramatika imperioaren laguna dela esan zuen Elio Antonio de Nebriak mendeak lehenago). Segismundo Moret, Marcelo Azcarraga, Camilo Polavieja eta espainiar kolonialismoaren sostengatzaileek liburua laudatu zuten, kultura enpresa politiko-militarraren partea zelakoan, gramatika hura amazigen artera bakez sartzeko bide egokia izan zitekeelakoan.

ESPAÑIAR KOLONIALISMOA

Espainia ere Europako beste estatu batzuen moduan hasi zen, XIXgarren mendearren erdi aldetik aurrera, Afrika konkistatu eta kolonizatu nahian. 1898ko Kubako eta Filipinetako desastreak ez zitzazkien amore emateko motibo bihurtu. Estatu Batuen kontra jasandako umilia-zioen ondoren, imperio ametsak berriz gauzatzeko aukera zutela pentsatu zuten politiko eta militar frakasatu haien, koste minimoekin, infidelen kontrako Erdi Aroko gerren espiritua errekuperatz eta erlijioa modernizazioaren

ideiekin bernizatuz. Maroko zibilizatu eta modernizatu nahi omen zuen Espainiak, penintsula bera modernizatzeko ere gauza ez zen arren.



Marokoko gerra

Marokoko Imperioan, berriz, sultanaren boterea oso ahula zen. Irtenbiderik gabeko zirkulua (etengabeko katea) hauxe zen: botere nahikoa ez zuenez gero, europar empresa eta estatuei kontzesio handiak egiten zizkien sultanak; europarron eskuetan jartzen zuelarik boterea, subditoa erregatua egiten zitzazkion, eta errebelatu ere bai, legitimazioa eta boterea ere kenduz sultanari; eta orduan, sultanak europar estatuen babesla larriago behar zuen, ahalmena eta aginpidea izateko.

1902 urtean hasi ziren Espainiaren eta Frantziaren arteko negoziaketa Marrokori buruz. Britainia Handia konformatu zenean, 1904ko ekainean sinaturiko Frantzia eta Britainia Handiaren arteko Entente Cordiale delakoarekin Egipto britainiarrentzat eta Marroko frantsesentzat geratzea adosturik, Madrid eta Paris arteko negoziaketa erraztu ziren eta Frantziak Marokoko lurraldetik bat (Gibraltarretik hurbileko) eskaini zion Espainiari. Alemaniako Wilhem II enperadoreari, ostera, ez zitzaison tratua



Melilla, soldadu espanyolak 1893 aldera.

gustatu, alemanen interes komertzialak Afrika iparraldetik kanpora geratzen zirelako. Honek nazioarteko konferentzia bat proposatu zuen eta Algeciras hirian bildu ziren.

Pedro H. Sarrionandiak Conferencia de Algeciras delaikoan berbere itzultzale gisa parte hartu zuen (Julian Alkortak arabiera itzultzale gisa parte hartu zuen) Espainiako Gobernuaren ordezkaritzan. Konferentzia hartan erabaki zen Marokoren etorkizuna, marokoarrak deliberaezioen lekuko ezindu zirela. 1906ko apirilaren 7an sinautako aktan, Alemania, Austria-Hungaria, Belgika, Estatu Batuak, Frantzia, Holanda, Britainia Handia, Maroko, Portugal, Suedia eta Espainiako ordezkariek, Espainia eta Frantzia arteko akordioan zehaztutako influentzia espanyruak onartu zituzten; eta alemanek Marokon negozioak egiteko eskubidea ere bai.

Akordioak nazioarteko tentsioa lasaitu zuen, baina ez zuen Marokora onura ekarri, ez bakea. Akordioaren arabera, Espainiaren babespean ('babesle' gisa aurkeztu baitira beti konkistatzaleak) geratu zen Maroko iparraldea: Ozeano Atlantikotik sartaldean Aljeriako mugaraino sortaldean; Mediterraneoa iparraldean eta Uarga ibaia hegoaldean. 20.000 inguru kilometro karratu balio eko-

nomiko eskasekoak: laborantzarako gauza ziren ordoki batzuk itsasbazter atlantikoan, basamortu zelaiak sortaldean, eta lurralte menditsua eta malkartsuak erdialde eta hegoaldean. Populazioa 700.000 ingurukoa zen, baina oso sakabanatua eta kabilatan (tributan) antolatua. La- rache eta Tetuan ziren hiri bakarrenetakoak; Zeuta eta Melillarekin batera.

Moroen erresistentzia espanyolen kontra zaharra zen. Espainiarren ahaleginek Zeuta eta Melilla hiri inguruaz jabetzeko eta, XXgarren mendearren hasieran, meategiak ustiatzeko, kabilen erresistentziarekin egin zuten topo. 1909ko sarraskiak, esate baterako, Compañía Española de Minas del Rif enpresak Ait Buifrak kabilako burdin meategiak ustiatzen hastearekin gertatu ziren. 1909eko uztailaren 9an, arrifiek minerala Melilla eramateko burdinbideari eraso zioten, Mohamed ben Amezian xerifea buru izan zuen intsurrekzioari hasiera emanez. Ait Buifrak, Masusa, Ait Sikar, Ait Sidel, Ait Bugafar, Ait Buiahi, Ait Said, Temsaman, Ait Tusin, Metalsa eta Ait Uariagel kabilak gerra zeharo antikolonialean engaiatu ziren. Espanolek Gurugu menda eta Kert ibaiaren bazterrak okupatzera joan ziren eta, Barranco del Lobo deitzen zuten atakan, ehunka militar erori ziren moroen erasopeko sarraskian.


Jende gehiena Marokoko gerraren kontra zegoen Es- painian, kapitalista gutxi batzuen interesak eta Ejertzito harro haren nabarmendu nahia besterik ez zirelakoan gerra harten jokatuko. Erreserbistak barkutan sartu eta Melillara bidaltzen hasi zirenean, jendea ernegatu egin zen eta agerraldiak eta grebak hasi ziren. Protestak zabaldu ziren uztaila-abuztuan eta, Bartzelonan batez ere, bilakaera larria izan zuten. Arrifeko Barranco del Loboko sarraskiaren ondoren, Bartzelonako 'aste tragikoa' heldu zen, manifestazio antimilitaristikak antikapitalista eta antiplerikal ere bihurturik.

PEDRO H. SARRIONANDIAREN ITZULERA

1909an, Pedro H. Sarriónandiak informe bat bidali zion Espainiako heziketa ministroari. Editore izenik gabe baina data osoarekin, azaroaren 23an argitaratu zen: Noticia sobre la lengua que se habla en el Rif.

1910eko maiatzean, Mogador (gaur eguneko Essaouira) aldera joan zen Pedro H. Sarriónandia. Marokoko Komisio espinolaren buru zen Eduardo Álvarez Ardanuyk esku-tuta, Santa Cruz de la Mar Pequeña lokalizatzeko batzordean parte hartu behar izan zuen. Historia xelebrea zen Santa Cruz de la Mar Pequeña delakoarena. 1860an, Uad-Raseko Tratatuau, Maroko mendebaldeko kostaldean antzina izan omen zen gotorleku inguruz jabetzeko eskubidea onartu zitzzion Espainiari. Diego García de Herrera delako marinel batek 1476 urtean Gaztelako estandartea ezarri omen baitzuen Afrikako itsasertzeko hondartza ezezagun batean, haren jabegoa berreskura-tzea zen gaua, nahiz eta inork ez jakin leku hori benetan non zegoen. Leopoldo O'Donnellen amarrua izan zen, seguru asko, kanariarra izanda, Kanarietako arrantzarentzat faktoria bat lortu nahi zuelako kontinente bazterrean. Espainiar geografo eta historiagileen arteko eztabaida arraro luzeak izan ziren harrezker, jakina. 1878an, Cesareo Fernández Duroren iritzia hobetsirik, Uad Ifni itsasadarrean lokalizatu zen ofizialki. 1902an, Frantziak ere eman zion Espainiari Sahara mendebaldeko Río de Oro eta Santa Cruz de la Mar Pequeña delako nonbai-teko lurralte horren jabegoa, Fezko harana eta Tazako pasabidea uztearen truke. Askozago, 1934ko apirilaren 6an, okupatuko zuen Espainiak Fernando Capaz koronelaren Gomarako taborrekin Ifniko territorioa.

Pedro H. Sarriónandiak hango amazigera ikertu zuen Mogador aldean: xelha edo axelhera. Haren asmoa, iparraldeko arrifera ezagutzen zuenez, hegoaldeko hizkerak ere



○ Pedro H. Sarriónandia abiatu zuten duen saiakera berri bat.

aztertzea zen. Uad Ifni aldean ere ibili zen, Ifniko lurralte espinoleko Ait Baamran kabilan baamranera ikertzen.

Mohamed Amezianen intsurrekzioak jarraitzen zuen artean, Frantziak eta Espainiak euren amaraun kolonialista zabaltzen segitu zuten. 1912an, Espainiak Frantziarekin sinatu zuen akordioa, Marokon biak (bakotza bere partean) babesle izango zirela. Hala sortu zen Protectorado espinola, sultanaren soberanipean eta Tetuanen lekututako kalifaren administrazioarekin. Espainolen xede estrategikoa, Ceuta eta Melilla hirietatik abiatu eta apur apurka territorio osoa modu ahalik eta baketsuenean menperatzea zen. Baino ezinezkoa egin zitzaien baketsuak izatea konkistatzairen izatearekin batera. Gerraontzi eta infanteriaren bidez egin beharko zuten aurrera Arrifeko lurraldean.



Pedro H. Sarrionandia Lebrijako (Elio Antonio Nebrixa-koaren sorlekura, idazkera gora-behera) komentura bidali zuten. Han, Diccionario rifeño-español delakoan jarraitu zuen lanean, gramatikaren osagarri, eta amazigeraren inguruko beste lan batzuetan. Garaira bueltako zen 1913ko udan. Orduan izan zuen istripu tontoa. Durangotik Zornotzara tranbia hartuta, bagoitik jausi eta Larreako komentuan hil zen, 1913 abuztuaren 5ean.

Amaitu gabe utzi zuen lana. Baino, dultzaineroa hil-dakoan, dultzainak jotzen jarraitzen duela dio arabiar atsotiz batek. Pedro H. Sarrionandiaren herentzia bitan banatu zen, bi dultzaina behintzat geratu balira bezala jotzeko. Bata Esteban Ibáñezek eta bestea Mohamed ben Abdelkrimek, dultzaina jotzeko modu ondo desberdinak.

Marokoko gerra



ESTEBAN IBÁÑEZEN IRUZURRA

Pedro H. Sarrionandiak hainbat izkribu utzi zuen Lebri-jako komentuan. Hil zenean, material guzti hori kutxa handi batean sartu zuten eta luzaroan geratuko zen inork ukitu gabe, ez zegoelako frantziskanoen artean beste inor amazigerari buruz bereziki interesatua. Harik eta 1937an Esteban Ibáñez, agertu zen arte. Esteban Ibáñez Burgosen jaioa zen, Arenillas del Río Pisuerga herrixkan, 1914an. Chipionan lehen meza eman eta Marokoko Mi-sioetara destinatu zuten, noiz eta, 1937an. Tangerren egon zen lehenengo eta, 1938an, Nador aldera bida-li zuten parroko gisa. Hala, gerra zibila amaitu orduko, Pedro H. Sarrionandiaren kutxa zaharra hartu zuen, es-ku-izkribu altxor hura editatzeko ardura hartu baitzuen. Denbora gutxi eman zuen Esteban Ibáñezek Marokon, 1942an ja Madrilera itzuli zelako. Kutxako izkribuak ar-gitaratzen hasi baino lehenago, hainbat artikulu publi-kuatut zituen: Tangerreko Mauritania aldizkarian, Pedro H. Sarrionandiari buruzko entsegu edo amazigeraren historia eta hedadurari buruzko zortzi ataleko saiake-ra atalka, eta Madrileko Verdad y vida agerkarian ere beste bi artikulu. Orduan, liburuak argitaratzen hasi zen. 1944an, Esteban Ibáñezek gaztelera-arrifera hiztegia ar-gitaratu zuen, Ramón Menéndez Pidalen prologoarekin. Esteban Ibáñezek harreman onak zituen Madrilen go-bernua-rekin, Fernando María Castilla Kanpo Arazoetako Ministroaren kapilau ere izan zen Arabia Saudira egin zen bidaia ofizialean.

Pedro H. Sarrionandiaren kutxa ezagutzen zuten frai-deak harriturik geratu ziren, hiztegiaren portadan, auto-retzat Esteban Ibáñezen izena bakarrik ikustean. Nahiz eta liburua Pedro H. Sarrionandiari eskaini, hiztegiaren oinarrian haren lana zegoela ez zen azaltzen. Fidel Le-jarzak autoretxa arazo hori planteatu zuen zuzenki erre-seina batean:

"...ez litzateke gehiegikera esatea kasu honetan justua zatekeela maisuaren eta dizipuluaren izenak egilekide gisa azaltea portadan bertan."

Hurrengo urteetan, Esteban Ibáñezek Pedro H. Sarriónandiaren laudorioak egiten jarraitu zuen Africa, Verdad y Vida eta Archivos del Instituto de Estudios Africanos aldizkarietan, kutxako materialak argitaratzen zituen aranean. 1949an, hiztegiaren bigarren partea publikatu zen, arrifera-gaztelera, Julio Casaresen prologoarekin. Hiztegi honek ere harrera ona izan zuen, erreseina ugari bai prentsan bai linguistika aldizkarietan, eta autoretzari buruzko eztabaidea berpiztu zen, frantziskanoen barruti gordean. 1954an, Esteban Ibáñezek gaztelera-baamrana hiztegia argitaratu zuen, José Díaz de Villegasen hitzaurrearekin. Hau ere Pedro H. Sarriónandiaren kutxako materialean oinarritutik. Baamranera, Ifniko Iurrealde espainoleko Ait Baamran kabilan hitz egiten zen amazigera zen, axelheraren azpidialektoa. Esteban Ibáñezek arriferari buruzko artikulu batzuekin jarraitu zuen, eta azken hiztegi bat ere argitaratu zuen: gaztelera-senhajera. Garaikoaren beste gai ezaguna zen, senhajera, arrifera ez zen Arrifeko dialektu amazig bat, Pedro H. Sarriónandiak deskubritu zuena Europako ikertzaleentzat, Amedée Renesiok esplikatu zuenez.

1961ean, Marokoko Misio Frantziskanoen ehun urtegarrena zelebratzen zuen liburuan, Esteban Ibáñezen ikerketen autoretzaren arazoa modu anonimo baina argian planteatu zen frantziskanoen aranean:

"Misioko nagusiak fitxategi oparo eta baliotsua A. E. Ibáñezen eskuetan utzi zuen, A. Sarriónandiaren afizioen jarraitzaile urruna baitzen; eta fitxategi hori arintasun ulertezin eta deskuidu gaitzesgarriarekin desagertarako batera, ikertzaila eta egile nagusiaren izenaren ordez antolatzaila eta proben zuzentzailearen izenez si-

La mayor parte de los cementerios actuales de la comarca del Duranguesado datan de finales del s.XIX; o sea, son posteriores al período crítico en que se plantean las necrópolis "extra ecclesiam". Pero eso no significa que se libraran de la dialéctica. Hoy casi todos entendemos el cementerio dentro de lo que podríamos denominar eufemísticamente jardín cerrado (huerto santo le llaman en algunos documentos) con las fosas dispuestas por el recinto, o en forma de nichos, con algunas de ellas más sobresalientes (panteones). Durango o Ermua tienen cementerios de este tipo. Unos con más nichos, otros con más fosas y panteones.

Pero existe otra opción, más antigua. Es la opción porticada, bien en versión culta, con pórticos sobre columnas de piedra, bien popular, sobre pies derechos de madera. La imagen del patio de una casa griega o romana no está mal traída. En cualquier caso, se trata de cuatro crujías que conforman pórticos de tejavana, donde las fosas descanzan a cobijo de la intemperie. Eso, hasta que invaden el jardín, lo que no tarda en producirse con motivo de contagios y guerras civiles, o el propio desarrollo demográfico. Ejemplos de ello ha habido varios en Bizkaia, y muy pocos fuera de ella; pero el mejor de todos será el existente de Xemein, del arquitecto Mariano José de Lascurain (1851). Debió de ser el modelo más seguido en la comarca; quizás porque entendieron los fieles que el sistema cubierto se parecía más a los pórticos parroquiales.

Varios pueblos del Duranguesado poseen también cementerios porticados. Y otros más los tuvieron. En un momento en que los recursos económicos son escasos, parece ejemplo ampuloso el de Elorrio (1858). De los dos proyectos que se manejaron se eligió el más barato, del maestro de obras Rufino Lasuen, con la conformidad de

Fermín de Vidaurre. Dada la autoridad de municipio del primero, se manipuló el concurso, desecharon el del arquitecto Rafael de Zavala, también elorriano. Partían ambos de la idea de un espacio rectangular y del pie forzado de la ermita de San Roque. Parece mejor el rechazado, que urbanizaba el entorno, pero hubiera pasado con éste como con el aprobado: que no se pudo terminar, ni con mucho, por excesivo. Además se utilizaron columnas de madera mezcladas con otras de piedra y tapias de aparejo pobre. Al final, no se pudo construir más que parte de las pandas de la parte baja. A los pórticos acompañaban 24 panteones de distinción dispuestos simétricamente en un jardín de tipo francés, es decir ordenado en cuatro partes que posteriormente han sido invadidos por sepulturas y panteones más modernos.

El de Abadiano es un poco anterior (1854) y resulta uno de los mejor conservados de la comarca y de Bizkaia. Es un recinto cuadrado rodeado de pórticos conformados por cuatro crujías de 10 columnas toscanas en las que calza entablamento con un friso liso donde se graban tremendo mensajes de los muertos a los vivos. El patio también sería invadido por sepulturas y no debe de tener amenazado su porvenir, aunque hace unos 25 años escondieron la armadura de la tejavana con un cielo raso de escayola. El proyecto de este espacio funerario culto y solemne lo firma Rafael de Zavala, con pareceres de Pedro José Astarbe.

Mañaria tiene un cementerio que es versión popular de lo comentado, puesto que las columnas son pies derechos de madera. Ha quedado precioso después de que se interviniere en él, sustituyendo las sepulturas que ocupaban incluso el patio, por nichos. No ha perdido las fosas de preferencia delante de la capilla, cerradas con losas.





Durango

Durango











Berriz

Otxandio





 En la página izquierda, inscripciones en cementerios de Durangaldea

El de Amorebieta respondía al mismo concepto que el de Abadiano; era porticado de cuatro crujías sobre columnas de piedra; un rectángulo de 65 x 55 mts. donde había diseñado una necrópolis Antonio de Barandica, maestro de obras en 1870. De entonces databa también la escalinata desaparecida por los accesos a la nueva estación de Euskotren.

En 1931 serían desmontadas las pandas. Queda del viejo la arruinada capilla, con frente de toscanas, el pasillo central enlosado de areniscas, parte de las tapias y la solemne portada dórica romana. Hace unos 15 años se ha reeditado uno de los porches, pero más alto y otro más, de doble piso en su ampliación lateral.

También porticado es el de Bérriz, que lleva pies derechos sosteniendo tres pandas. Y porticada es igualmente la reciente ampliación, arriba, por detrás de la capilla.

El proyecto de Arrázola es para una pequeña necrópolis de una pequeña feligresía. Los pies derechos son troncos labrados para sostener pórtico de dos tramos, pensado para cobijar 28 sepulturas familiares. Dentro de lo popular, su proyectista, el agrimensor Anacleto Elcoro (1866), intenta parecer culto.

La necrópolis de Argiñeta (Elorrio) no es un cementerio histórico, sino una acumulación ordenada de sepulcros y estelas medievales rescatados de los alrededores, fechados entre el 883 y el S. XIII. La agrupación se debe al párroco local, P.Retolaza, quien la organizó poco antes de 1880. Interesantísima por calidad y cronología.

LOS ARTÍFICES

Los Regimientos (o las parroquias) echan mano de lo que tienen más cerca para proyectar sus nuevas necrópolis: arquitectos, maestros de obra, agrimensores, directores de caminos, etc. Los arriba citados son gente competente para firmar proyectos, unas veces cultos (Rafael de Zavala en Abadiano y Elorrio, o Antonio Barandica en Amorebieta) y otras populares: Elcoro en Arrázola, los de Bérriz, Mañaria, etc. Aunque esto depende, claro, del presupuesto. La arquitectura neoclásica tiene una estación importante en la modalidad funeraria. Lo que no se les puede negar es la melancolía que aún revelan sus creaciones porticadas. (Que reeditan los arquitectos modernos).

Los artífices citados en el epígrafe anterior, no hacen sino seguir los pasos de algunos maestros del Duranguesado que ejercieron fuera de una comarca especialmente fértil en gentes dedicadas a proyectar obras muy variadas, religiosas y civiles. Citemos algunos de los más destacados, todos figuras de alto rango dentro del neoclasicismo en sus diversas fases: Francisco Xavier de Capelastegui, Santos Angel de Ochandategui, Agustín de Humaran, Martín de Echaburu o Francisco María de Aguirre entre otros. [\[a\]](#)

José A. Barrio Loza

Catedrático emérito de Historia del Arte de la Universidad de Deusto





KIROLENE

KIROL IRAKASKUNTZEN ESKOLA

*Kirol Irakaskuntzen Ikastetxe Publikoa
Centro Público de Enseñanzas Deportivas*



Titulazio Ofizialak Titulaciones Oficiales

Saskibaloia Baloncesto

Eskubaloia Balonmano

Futbola eta areto futbola Futbol y fútbol sala

Atletismoa Atletismo

Mendikirolak eta eskalada Deportes de montaña y escalada

Neguko kirolak Deportes de invierno

...eta abar etc...

San Inazio Auzunea, 5. • 48200 DURANGO • BIZKAIA

Tel. 946 811 119 • Fax. 946 030 668

info@kirolene.net • www.kirolene.net



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

HERRIAKTA, UNIVERSITATEA
ETI-IRREPETA SALA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

10 URTE KULTURAREN ALDE



100 URTE HISTORIAN

UDAL MEDIATEKA 2003-2013

ZELETABE JAUREGIA 1913-2013

1913





Elorrioko Plaza

TEXTO: JOSE LUIS ARRUABARRENA

FOTOS: TXELU ANGOITIA



Elorrioko plaza arietik. Iñigo Gabiria



Dantzariak Elorrioko plazan

Elorrioko plazaren lehenengo aipua 1501. urtekoa da, orduko alkatea, Juan Perez de Leaniz, bertan bizi zenekoa.

XV. mendean hiribilduko biztanle haziak kale estuetan adarkatutako etxe itzaltsuek emandakoak baino bizi-bal-dintza hobeak nahi zituzten, eta aldi baterako, harresiz kanpora jo zuten. Elorriion, errabalik antzinakoenak San Faustokoa, Goikarrabala eta Kanpokalekoa ziren.

Aldi berean, kanpoaldeko zabalgunea, San Juan (Erre-kakale) eta Errosarioko (Kanpokale) Ateen aurrean dagoen zelaigunea garrantzia irabazten joan zen,

jende-arteko harremanetarako espazio publiko gisa. Orduan, haren perimetroan eraikitzen hasi ziren. Hegoaldean prestigiozko eraikina izango zuen, hain zuzen, hiribilduko eliza; ex-novo eraikitzen hasi ziren, 1459an. Bestetik, Zumelegi errekkak ipar lerroko etxean atzealdearekin mugatuko du.

Harresiaren surrealdean etxadi bat eraiki zen, tartean kale bat zuela, eta ateetatik zetozenean bide biek zein elizazurreko eremu publikoak zedarrituko zuen; hala, lehenago zelaigunea bitan banatu zen: alde batetik, plaza Zaharra hiribilduko hesiaren ondoan, nahi gabeko boulevardera balitz bezala; eta bestetik, plaza nagusia.



 Juanito Gallastegi. Eliza

1689an, udaletxe berria egungo tokian eraiki ondoren, gaur egun Herriko Plaza denak hartu zuen gizartearren arreta osoa, hau da, lehengo Plaza Nagusiak eta antzina nako Plaza Zaharrak.

1927an Plaza Nagusitzat jo zen, baina udal-agintariek, "Plaza de Alfonso XIII" izendatu zuten. Ondoren, errepublika ezartzean, udalbatza berria eratzean (apirilaren 15ean bertan), izena zuzendu zioten: "Gernikako Zugatz Zelaya / Plaza del Arbol de Guernica" deitu zuten, tokiko errepublikarren asmoak gorabehera. Gerra igaro eta gero, 1937. urtean, agintari eskumendunek "Plaza de España" izena ezarri zioten, eta gerora, demokrazia iristean, Ger-

nikako Arbola Plaza edo Gernikako Arbola Enparantza izenen artean ibili zen kontua. Azkenik, 2010ean, egungo izen ofiziala eman zitzzion, hots, "Herriko Plaza".

ERAKITAKO ESPAZIOA

Sortzez Garbiaren basilikaren monumentalitasuna nagusitzen da plazaren irudian, eta haren dorre lerdekan areagotu egiten du sentsazio hori.

1459an ekin zioten eliza eraikitzeari, eta proiektu gotikoa hiru nabe aurreikusten ziren. XVII. mendeko biga-



Silvia. Frontis Taberna

rren erditik aurrera, elizpea eraiki zen, bai eta 54 metro altu zen dorrea ere, aurreko kanpai-hormaren ordez.

Elizaren oinetan, plazatik San Pio kalerako bidean, Arabio jauregi errenazentista dago. Gaur egun, erabat berriztatu du, eta elizarena da, lehengo jabeek, Ortiz de Vidasolotarrek, dohaintzan eman baitzieten.

Plazan egon ez arren, hura apaindu eta berez goratzen duen beste eraikin bat "Casajara" jauregia da. Zearsolo jauregiaren handitzea da, Joaquin de Yrizarren trazaren araberara 1934an egina, eta fatxada berri eta monumentala plazaera begira dauka, lorategidun sarbide batek nabarmenduta.

Lorategi horren harresiaren kanpoaldean Errebonbilloen estatua dago, brontze urtuaz egina. Lan hori Taldea talde eibartarreko kide batek egin zuen, hain zuzen, Lourdes Umerezek, eta herriari ospea eman izan dio 2003tik. Gainera, eskultura horrek lagun egiten dio tokiko odol-emaile eskuzabalen omenez 2007az gerotzik dagoen eskulturari, hain zuzen, Odol Alai elkartekoei, urezko ezteguen atarian daudenei, hain zuzen.

Aurreko biak bezala, plazako Iturri Nagusiak (berriki Iturri zoro deitu izan dute) topografia gorabeheratsuaren gainean kokaturik dago, eta rokoko estilokoa da. Lau turrusta ditu egarri direnak asetzeko, baina sargori denean,



Mila. Aratz bitxi-denda

ur-parke inprobisatu bihurtzen da haurrentzat, guraso bat baino gehiagoren begiradapean. 1759an eraiki zuten Ignacio de Ibero maisuaren trazuaaren arabera eta Juan de Garay y Leanizek eman zituen 2.000 pesoei esker; Santa Anako plazatxoan dagoen iturri txikiagoaren (1763) hurbileko senitarteko da.

Lur sakratuaren gainean eraiki zenez –elizako “çimite-rio” deiturikoan– eta ur-hartuneak egiteko antzinako hilera-elementu batzuk berrerabili omen zirenez, bertatik edaten duena zoratu egiten delako ustea zabaldu zen inguruko herriean. Hortik dator honako esaera:

“Esaten dabe, elorrihokuek zintzoak jaishotzen direla, baina plaza plazako iturritik eranda, zoruak bihurtzen direla.”

Berriro ere (ofizialki) Herriko Plazara itzultzean Parra tabernak hartuko gaitu, antzinako Urkizutarren palazioan aristokraziaz kokatua dago, eta fatxada deigarriaren dobreziak ez ezik, hegoaldean duen begiratoki ikusgarriak ere erakarriko gaitu.

Arlo berekoen artean, plaza eta inguruko negoziorik zaharrena da, eta Bernardino Igartzaren Bar Centralen ondorengoa da. Izan ere, hark etxea erosi zuen eta halaber, Victor Linaza eta haren emazteak, Marcelina



Isa. Matzorri okindegia

Aldapeurrutiak XIX. mende bukaeratik zuten ostatuaren eta tabernaren negozioarekin jarraitu zuen. Marcelina su-kaldari iaioa zen, eta alargun gelditu zen seme-alabarik eduki gabe. Hala, Marcos Arroitak, haren ilobak lagunduzion, tabernaren ardura hartuta. Bidenabar, esan beharra dago Elorrioko Alderdi Tradizionalistaren lehenengo egoitza ere izan zela, jabea, Marcelina bera, hil arte.

Aurrekoari atxikita, Elorrioko hiribilduko udaletxea dago. Ez dakigu nor izan zen 1689ko eraikin honen trazatzaila, baina bai ordea arotza eta teilatuaren hegala egin zuen zizelatzaila nortzuk izan ziren, hain zuzen, Juan de Ocerin eta Juan Bautista de Aldariaga, hurrenez hurren.

Litekeena da lehenengo birmoldaketa 1775koa izatea, Capelasteguitar batek egina (agian Gabrielek), baina ez daukagu lan horren inguruko beste informaziorik, ez bada fatxadan idatzitako: Año 1775: Fecit Capelastegui.

Fatxada urre-koloreko hareharrizko harlanduz egina dago. Oso ondo zizelatuta dago, eta Elorrio-Bizkaiko armarriak eta Gaztela-Leongo errege-armarriak apaintzen dute. Horien azpian hainbat esaera zentzatzale daude. Frontoira ematen duen balkoiko atearen gainean eguzki-erloju bat dago, behinola praktikoa izandakoa, norbaitek eztena noiz ezarriko, orduetan itzala eman diezaien. Egungo eraikina joan den mendeko 80ko hamarkadan eraberritu zuten.



 Txaber. Parra Taberna

Errekakalerako bidean, frontoia dago udaletxeari atxikita. 1933an eraiki zuten, Picaza arkitektoaren trazaren arabera, eta antzinako **Bolaleku zar** izeneko zelaia eta nesken ama-eskolaren orubea hartu zituen, eta Arriola-ko 2. eta 4.ean zegoen Frontoi Zaharra (XVIII. mendeko lehenengo hamarkadetako) ordezu zuen.

Aipatzekoa da, urtebete geroago Juan Urizarrek Bar Frontón inauguratu zuela (Errekakale, 2), errebotearen horraren ondoan eraikitako etxearen behealdean, hain justu.

Gaur egun mendebaldean ikusten dugun eraikina 1866an eraiki zuten Urandurraga anaiek, beraz, data

hartan dagoeneko, plazak egungoaren antzeko tanke-ra zuen.

GIZARTEA

Elorrioko Herriko Plaza topaleku eta bilguneen artean nagusi da, espazio ireki eta irisgarria delako. Tradizioz herriarren administrazio-jarduera zibila eta erlijiosoa antolatu ditu, eta laurogeiko hamarkadako birmoldaketen ostean, jarduera berriak hartzeko gaitasuna area-gotu du, besteak beste merkataritzakoak, ludikoak eta aisialdikoak.



Pipo. Urre-berri Taberna

Adinean sartuta gaudenon artean, batek baino gehiagok gogoratuko dugu zabalgune asfaltatua, goitik behera zeharkatzen zuen errepiidearekin; bide hura, oso arriskutsua zen, kamioien, autoen eta abarren joan-etorrien ondorioz, azken finean, Gipuzkoa eta Bergarakit Durango eta Bilborakoa zelako. Beste bide bat, honakoa lasaixeagoa, udaletxearen paretik igaro zen, eta Errekakale (Bisioso Kale, Kale Biziosa, Carlos VII,...) Berrio-Otxoa eta Buskantz kaleekin batzen zuen, Bernardinoren tabernatik eta Tribuliren dendatik igarota. Haren guztiaren erdian autobus-geltokia zegoen, aparkaleku bat, eta taxien geltokia –baterian– Circuloren azpian.

Hori kontrolatzeko, udal-agintaritza zegoen, hau da, udaltzainak egunez, eta gauzaina gauez. Nire gomutan José Mari Urien, lanpostuko burua eta José "Goikoerrotta" daude, "Lauri" eta Lucio "Txatua"-ren ordezkoak; "Uriko", "Arrati"... eta gaueko txandan José Antonio Herranz, (udal-entrenatzaire eta masajista "hezur-kontontzaile" estimatua tartean) Santi Aragón, Naranjo...

Gure olgetarako, frontoia, eta **kontzeupea** zeuden, eta horien artean Barkiren kioskoa, Dolores Ugarte "Tribulli" eta **Malageñuari** konpetentzia eginez; azken horiek kantoiaren zeuden, gaur egungo Igartua Kirolak-en parean. Bestetik, gaineratu behar da, azken bi horien artean Nati



Maixa. Txokolat

Alvarezen txurro-denda/kioskoa zegoela, eta igande eta jaiegunetan soilik zabaltzen zela.

Parez pare, gure bihurrikeriekin jarraitzeko, plazako iturria eta elizpea zeuden. Azken horren kasuan, adi egoten ginен bataio bat noiz egongo, oro har, litxarreriak eta txanponak jaurtiz ospatzten baitziren, gure zuzkidura eskasaren mesedetan.

Ezkontzakoek, biderakoek edo doluek, gure denbora-pasarako aukera areagotzen zuten. Hala izan zen elizpearren men-debaldeko aldea lurreratu arte; zutoinen eta aurrien nahas-mahas hura jolas-parkerik hoberena izan zen asteetan.

Nagusiak, beriz, beren erara entretenitzen ziren. Lehenengo, meza, batzuetan prozesio eta guzti; ondoren, pilota-partida egon zitekeen frontoian, edo freskagarriren bat har zitekeen plazako tabernaren batean. Guk, nahiago genuen Rufino Ibarrarenean hartzea (orain Matzorri dagoen tokian), gozodenda ere bazeleko, eta ezpabere, Parran, Bernardinorenean, igel-toka zegoelako, bai eta zutabe bat ere. Esaten zenaren arabera, zutabe hura Memaiako Santa Marina ermitakoa zen, eta hango hobiekin egin omen zen iturriko hoditeria. Gaur egun, Txaberrek 2000. urtean egindako eraberritzearen ostean, plazako taberna zaharrenak erreferentzia izaaten jarraitzen du, pintxo zoragarri betetako barraren



Monse. Monse Iurrindegia

tentazioaz gain, lantzean-lantzean bertan antolatzen dituzten kultur ekintzengatik.

Gure aukeren artean, beste klasiko bat ere bazen: Bar Frontón edo "Bedrines", kantxa bera baino urtebete eta erdi gazteagoa. Gaur egun Frontis izenez ezaguna da. Sasoi hartan, lokal horren aurrean Felyren gozodenda zegoen, gure arretarik gozoenaren erakarle. Orain ere, dena dago "berdin" ezberdin izanda ere. Duela lau urte, Silvia Piñelek hartu zuen haren ardura, eta eraberritu egin zuen. Frontis toki eta elkargune erosoa da: kafe ona, gozoki goxoak eta pintxo apartak. Haren parean, litxarriek, izozkiak, gozokiak... daude Txokolaten, Maixa Ca-

reteroren eskutik. Aurrekoen errelebo duina da, besteark beste Felyren testigua jaso zuen Elorrio gozodenda, edo Arco Iriseko gozokiak, Fidel López "Barki" renak, Dolores Ugarterenak edo **Malageñuarenak**. Azken horrek plazan zeuden **ye-yeren** urteetan.

Urte haietan, plazan taberna inauguratu zuen Ignacio Ibarra, Rufinoren semeak, eta Bar Ibarra deitu zen; jende gutxirentzako lekua egon arren, inguruko zirkuituan nahitaezko geratokia da. Gaur egun, Amaia Sasieta da arduraduna, eta udako iluntzeetan, desiragarria izaten da terrazako itzalen freskuran ondo botatako kaña bat hartzea.



 Olatz eta Markel. Ibarra Taberna

Haren gainean, lehenengo solairuan, Círculo zegoen, taberna eta jatetxea, azken urteetan Restaurante Nico izena hartu zuena; jatunen tenplua izan zen, sukaldean presta -lanak eta mahaian anoa handiak zaintzen zituen. Haren kafetegia tokiko tradisionalisten egoitza izan zen gerrostean, aurrelik jeltzaleen batzokia izan zen modu berean.

San Pio kaleko 2.enean Urre-Berri ireki zuten José Mari Urrechak eta Oliva Berriok, eta gaur egun, Carlos Gómez de Segura "Pipo" adeitsuak eta haren emazteak, Arantza Irigoieneak, dute tabernaren ardura. Bertan, ez dira falta rabak igande goizetan, eta Athleticens partida dagokionean.

Ostalaritzaren eboluzioak argi uzten ditu beste negozio batzuetan gertatutako etenak eta aldaketak, eta denbora joan ahala, sektore horrek bere burua berritu izan du.

Oinarrizko salgaiak zituzten dendak 70eko hamarkadako bukaerara arte egon ziren plazan eta haren inguruan, baina haien desagertzean, bigarren mailako entitateek leku hartzute.

Hala, Berrio-Otxoa kaleko lehenengoan zegoen Ultramarinos de Abarrategui –"Tribuli"– deritzerak, tokia utzion BBKren bulegoari, eta gero, 1995ean, Igartua Kiro-lak izeneko kirol-denda ezarri zen, Urarka kalean zeukan



⌚ Nerea eta Bego. Igartua Kirolak.

denda tokiz aldatuta. Era berean, BBKren bulegoa, egun Kutxa Bank, Arabio jauregiaren behealdean ezarri zen, San Pio kaleko 1.ean.

Goraxeago, Berrio-Otxoa kaleko 3.ean, xeheka saltzeko zapata- eta zereal-dendak zeuden, eta 50eko hamarkadatik 60ko hamarkadara, jaki-dendak (Pascual). Denbora luzez eraikina hutsik egon ondoren, 80ko hamarkadan eraberritu egin zuten, eta haren behealdean Montse Urizar eta haren senar Nestor Uriarte lurrindegia ireki zuten, Errekakalean zeukatenaren ondorengoa.

Bosgarrenean, Urkizu jauregi eta dorrean, ugazaba berria

Euskadiko Kutxa izan zen, eta lekuz aldatu zen Errekakalitik inguru aristokratikoago horretara.

Sartaldean, Herriko Plazako 4.aren behealdea lau negoziok hartzen dute. 1989an, Mila Bilbaoren Aratz bitxidenda Urarkatik lekuz aldatu eta Valentín Kapelastegiren negozioen –Seguros Bilbao eta Garby– txanda hartu zuen, aurretik beste familia-negozio bat ordeztu zuena.

Haren ondoan, Iturriastillo Oinetakoak dago. Bertan, Gemma Iturriastillok familiako negozioari eutsi dio, bere aita Antonio ordeztuta. Hark, halaber, Julián Eguren zapatak saldu eta konpontzeko negozio-intsuldaketa



Juanan. Udaltzaina.

hartu zuen, eta era berean, Julianek Errekakaleko abarke-ta-denda atzean utzi zuen.

Iturricastillorena da plazan betidanik dagoen eta ostala-ritzan jardun ez duen negozio bakarra.

Errekakalearekiko izkinan, Jesus Aranzabalen jaki-den-dak Onagoitiaren aroztegia ordeztu zuen. Halaber, duela urre gutxi, Banestoren bulegoak gauza bera egin zuen, eta hantxe ezarri zen.

Laurogeiko hamarkadako bukaeran plaza berriro urbani-zatu zen, eta 2006. urtean ibilgailuak zirkulatzea debe-

katu zen; ondorioz, bertako espazio publikoa herritarren aisiaaldiak ohiko leku bihurtzea eragin du.

Inguruko tabernetan terrazak ipini ahal izateak, eta elizako eta frontoiko harmailak konpondu izanak, ber-taratuek harremana izatea errazten dute, bai eta hau-rrentzako ekintzak antolatzea ere;; horri mesede egiten diote noi Zubehinka antolatzen diren kultur edo kirol ekitaldiek, giro ona sortzeko aukera zabala eskaintzen baitute. **a**

Jose Luis Arruabarrena



Ondare ibilbidea
Bisita audio-gidatuak

Ruta patrimonial
Visitas audio-guiadas



AHTgelditu!
ELKARLANA



EUSKAL HERRIRA



IZURTZA UDALA

www.izurtza.net • 94 681 35 48

Zornotzako Batailla

TESTUA: ERREDAKZIO TALDEA

३०

Francesca

Digitized by srujanika@gmail.com

二二

37 38



Apenas aipatu dute historiako liburuetan, baina Zornotzako bataila Amorebieta eta Etxanoren lurretan eta lurretako mugarteetan gertatu zen, eta Bailengo borroken ostean atzena egiten omen zegoen armada frantsesak Espainiako tropak garaitu zituen. Napoleonek ez zuen goratu bataila hura; izan ere, inbasioa lastertzera behartu zuen, eta arerioa guztiz suntsitzeko planak zapuztu zizkion.

Bataila hura penintsularen zatirik handienaren 5 urteko okupazioaren abiagunea izan zen; garai beltza izan zen herriarentzat, haien tropa inbaditzaileen zuzkidura-exijentziengatik zama beren bizkarrean erori baitzen, bai eta gatazkaren egoerak eragin zituzten mota guztiak gehiegikeriak eta errepresaliak ere.



ZORNOTZAKO BATAILAREN AURREKARIAK

Napoleonen tropek penintsula okupatu ostean, gertakizunak abiada bizian jazo ziren. 1808ko maiatzaren 2an Madridilen izandako herri-altxamendua bala-bala hedatu zen, frantsesak Bailenen garaitu eta Eborantz atzena egin arte.

Joaquín Blake jeneralra, jatorri irlandarreko malagarra, Ezkerreko Armadaz arduratu zen (Ebroren Ierrotik ezkerreko zuen posizioagatik zeukan izen hori). Indar horrek, Euskal Herriko guerrillarekin batera, aurrera egin zuen Bizkaiko erresistentziari –izaera irregularrekoa– laguntzeko

eta inperialei Irungo muga igarotzea eragozteko asmoz. Bilbo askatu zuten 1808ko irailaren 20an, baina atzena egin behar izan zuten, sei egun geroago Ney mariskal bel-durgarriak bere armadarekin batera aurrera egin zuelako.

1808ko urri hasieran, Napoleon bera sartu orduko, armada frantsesak Gasteizen zeukan kuartel nagusia, eta Ebrotik harago zegoen finkatuta. Une hartan, infanteriako 40.000 soldadu eta zaldizko 10.000 baino ez zituen.

Artean, Napoleon prestalanetan zebilen isilgordean armadako bost talde biltzen, Irun eta Figueresen artean,

Pirinioen muga osoan zehar. Guztira ia 250.000 soldadu, zaldizkoak, artilleriakoak zein infanteriakoak, bai Europako kanpainetako beteranoak, bai mugako soldadu hasiberriak. Hau da, Joaquín Blake jeneralaren unitateek ez zeukaten inperioaren maniobra itzelaren irismenaren berri, eta arerioak gehienez ere Gasteizko delako dibisioak baino ez zituela uste zuten.

Areago, Asturiaseko Boluntarioen dibisio indartsua Defentsako Armadari atxiki berri zitzaison, ia 8.000 soldadu zituela. Hori horrela, Blake eta haren mendekoak –Vicente Acevedo koronela, bereziki– adoretu egin ziren borroka lehenbailehen hasteko, eta tropak aurreratu zituzten egungo Zornotzako Merinalderaino, urriaren 24a eta 25a bitarte. Begi bistan da Joaquín Blake jeneralak “beste Bailén” bat zeukala buruan, baina ametsezko itxaropena baino ez zen.

Hartara, Blakek bi defentsa-lerro zabaletan ezarri zituen kontingenteak: lehenengoak, Ibaizabalen ezkerreko ertza babesten zuen, Bernagoitiko goialdean; eta bigarrenak, Muniketako hegalak, kontrako eremua. Hartara, bizkaitarren tokiko gerrillarekin batera, inperioaren unitateak berehala setiatu nahi zituen mugalderako igaroa ixteko. Gutxi gorabehera 23.000 gizon nguru ziren, gehienak herritar boluntarioak, borrokarako grina handiarekin, baina ezagutza taktiko gutxirekin.

Napoleonen ustez, tokiko erresistentziako armada trampa hilgarrian erortzeko zorian zegoen. Izan ere, zenbat eta gehiago hurreratu beste indar horietara, orduan eta arinago suntsituko zuen. Baino patua ez da inoiz espero bezalakoa, eta “korsikar handiaren” gomuta azkarregi ibili zen... Lefebvre mariskalak, enperadorearen Kuartel Nagusiaren maniobraren berri izan gabe, 25.000 soldaduko errejimentua Durango ingurura hurbildu zuen, bere kabuz borrokatzeko asmoz.

ZORNOTZAKO BATAILAREN GARAPENA

Tokiko gerrillaren babesia zutela, Joaquín Blakeren unitateak Ibaizabalen ezkerraldean eta Bernagoitiren goialdean eta Muniketako hegaletan ezarri zirenez Amorebieta eta Etxano babestuz, Lefebvre mariskalak erasoa bizkortu zuen Durangotik. Are gehiago, Asturiaseko eta Galiziako errejimentuak eta Bizkaiko gerrillaren indar irregularrek Arratiako bailaran zehar hedatzeko Blakeren maniobrak Lefebvreren grina suspertu zuen. Kontua da mariskal frantsesak ez zuela aintzat hartu “leku absolututzat” jo izana, eta bere kamaraden eta lehiakideen artean –Ney, Victor, Bessières eta Soult mariskalak– arrakasta militarra zuen lehenengoa izaten ahalegindu zen. Berez, Zornotzako Merinalde guztian urriaren 26tik entzuten ziren jada liskar eta tiro bakan batzuk, Blakeren tropen eta Durango inguruan zeuden Lefebvren abangoardiaren posizionamenduaren ondorioz. Hau da, lapurretak eta bortxaketak borroka nagusia baino sei egun lehenago hasi ziren.

Inguruko biztanle zibilek –artzain, apartzero, artisau, okin, errementari, olagizon eta nekazari xumeak, besteari– gerrari buruz ezer gutxi zekiten, eta are gutxiago



Ejército Napoleónico.

inperioko eskuadroiak hurbil edukita lepogaineratuko zi-tzaienaz ere. Herritar xumeak ziren, tradizion eta eguneroko bizimoduaren jagoleak, eta azkenean, borrokaren eta ondorengo okupazioaren benetako biktimaik izan ziren. Arazoa armada inbaditzalearen ibileren ostean eterri zen, bizitza xalo haiiek erabat eraldatu eta kasu askotan, guerrilla ankerrena elikatzean. Hau da, bizi-erresistentzia eresistentzia ideologikoaren aurretik zegoen; mendekua, "heriotzaren kultura" gisa, borrokaren zentzu politikoaren aurretik.

Esparru horretan, Lefebvre mariskalak urriaren 31n bidalí zuen Villate mendekoaren dibisioa Blakeren Defentsako Armadaren eskuineko hegalaria, eta Kataluniako Boluntarioen Dibisioko soldaduak ustekabeen harrapatu zituen, erabat suntsitu arte. Hala ere, aurretiaz buruz buruko borroka izan zuten Bernagoitiko goialdeko behe lainoaren eta bolbora zurizko desarra gorgarrien artean. Hantxe erori ziren, halaber, ehunka soldadugai frantses,



■ Joaquín Blake, jefe del ejército español.

bai Frantziako ipar ekiardekoak, bai iparraldekoak (familia mugaren alde bietan zutenak), hasi berri zegoen gerrari inolako zentzurik aurkitzen ez ziotela. Guztiz kontraesan absurdua.

BORROKEN EMAITZA

Aldi berean, Lefebvre mariskalak beste eraso bat ekin zion, Joaquín Blakeren posizioen erdi-aldeetik eta ezke-reko hegaletik sinkronizatuta, bere ofizial gogorrenen bidez: Sebastiani eta Leval, hurrenez hurren. Ondorioz, Blakeren soldaduen lehenengo lerroak atzera egin behar izan zuen gizon gehiago ez galtzeko, eta unitate frantsesak Amorebietaen bertan sartu ziren. Artean, San Miguel eta San Martin mendietako posizioak galdu ziren. Area-go. Ibaizabalen ertzak alde bietako zenduez bete ziren, eta Arrindako kokapen estrategikoa ere ordu batzuk lehenago jausi zen.



■ Mariscal Lefebvre, jefe del ejército francés.



Bernagoitia. Txelu Angoitia.

Blakeren hala moduzko garaipena izan zen. Izan ere, lehenengo Neberondoko gailurretarantz atzera egin behar izan zuen, ondoren, behin betiko Bizkargiko hegaletarantz erretiratzeko, eta azkenik, urriaren 31n eta azaroaren 1ean, Lezamarantz eta Bilbo inguruko mendietarantz abiatzeko, Balmasedako posiziorako bidean.

Hasieran, imperialek Gueñes ingurura arte jarraitu zioten Blakeri, baina guerrilla bizkaitarrak atzealdean egindako erasoek nabarmen eragotzi zituzten mugimendu imperialek, ez baitzuten bizirik utzi atzeratutako ezein eskuadroi.

Amorebieta eta Etxano berehala okupatu zituen Arma da frantses erraldoiak, eta ez zuten hormarik zutik utzi guerrillari laguntzen ziotelako edo Blakeren tropak hornitzen zituztelako susmoak zitzaztenen etxeetan. Hortaz, dendak, burdinolak, komentuak, tailer txikiak edo base-riak konfiskatu edo suntsitu zitzuten.

GERRA ZORNOTZAKO MERINALDERA IRITSI ZEN

Napoleon enperadorea, berriz, sutan jarri zen gerta-karien berri izatean. Izan ere, haren planak agerian gelditu ziren. Haren haserrea areago bizitzeko, ordu-ra arte Blakeren armada eta tokiko gerrilla mehatxu bat besterik ez ziren izan, baina orain, lortu beharreko errealityate bat zen, eta horretarako, unitate imperial asko ahitu behar zituzten, Blake jeneralak atzera egi-teko oso taktika eraginkorra erabili baitzuen. Frantsesen gudulari kopuru handiaren aurrean galduak posizioak ikusita, eta Ibaizabalen inguruan zeuden gailurretan kokatzeko artilleria eta zaldizkorri nahi-korik ez zuela, Blakek bere tropak garaiz erretiratzea erabaki zuen, eta sarraski bat eragozteaz gain, imperialei atzetik jarraitzea zaildu zien. Horrez gain, Zornotzako eremuko familia osoek, baita Bilbo ingurukoek



Soldadu espanyiarra



Soldadu frantziar



Euskal gerrillari

ere, Blakeren atzealdearekin bat egin zuten, eta hala, frantsesen errepresaliez libratu ziren. Azken batean, garai hartan, Euskal Herria lehentasuneko borrokaguena zen Napoleon Bonaparte enperadorearen gizondantzat, eta izaera horrek luze iraun zuen.

ZORNOTZAKO BATAILAREN ONDORIOAK

Bailenen ostean frantsesak presaz erretiratzean, Zornotzako Bataila izan zen Napoleonen aldeko indarrak eta Defentsako Armada buruz buru jarri zituen lehenengo borroka.

Lefebvre jeneralaren presazko ekintzaren ondorioz Napoleonen estrategia eta haren armadaren potentzia agerian

gelditu ziren garaia baino lehen; hortaz, enperadoreak Victor mariskal gazte eta ongi prestatuari agindu zion Blakeren tropiei ahalik eta azkarren jarraitzeko, bai eta irismenean egotean erabat suntsitzeko ere.

Armadako gorputz gehienen sarrera aurreratu zuen Bida-soatik, eta azaroaren 7an bertan zeharkatu zuen ibaia, hain zuzen, Zornotzari buruzko berria nonahi zabaldu eta erresistentziaren aurretiko jarrera eragin ez zezan.

Une hartatik aurrera, Euskal Herria tropa imperialen mende egongo zen erabat, eta okupazioak 1813ra arte iraun zuen. Hartara, gunea zuzkidura-eremua izan zen unitate frantsesentzat, tokiko biztanleen kalterako, eta gerora, "kolpebabes" geografikoa izan zen, Ebrotik edo Duerotik zetorren edozein eraso leuntzeko oso menditsua baitzen.



El General de Brigada, Baron
Duvernet al Alcalde de Durango

La justicia de este pueblo de Sorronra le ha escrito a usted por orden mia p. q. e mandara usted hoy las raciones q. e le tengo pedidas: a pesar de esta providencia no ha hecho usted caso p. q. nada ha llegado aun: por ultimo aviso le digo que si no vienen dichas raciones p. — mañana ²³⁻ a las dos de la mañana, saldra un destacamento p. q. saqueen las casas de los individuos desfut. de esa villa y traerlos arrestados.

El General de Brigada

Baron

He por su manda

Sorronra a 22 de Junio

*Con razón o sin ella.*

“Los desastres de la guerra.” Goya.


Victor mariskalaren kontingente indarberrituek egun batzuk geroago garaitu zuten Blakeren armada akitua Espinosako borrokan, azaroaren 10ean eta 11n. Defentsako Armadako 3.000 soldadutik gora hil ziren, haietako batzuk zaparroak; edonola ere, Blakek Asturiaseko, Galiziako eta Kataluniako boluntarioen dibisioen zatirik handiena salbatu ahal izan zuen ziztu bizian Leonerantz erretiratuta.

Zotzak boteak ziren. Napoleon bera euskal eremutik beherantz zen, Burgoseko bidean. Hainbat garaipenen ostean (Gamonal eta Somosierra), Madrilgo atarian zen, eta hiria errenditzea lortu zuen 1808ko abenduaren 3a eta 4a bitarte.

Zornotzan itsumustuan hasitako erasoaldia lerratu eta, hilabete geroago, penintsulako hiririk handiena hartua zuen. Maniobra laster baten ondoren, Napoleon enperadoreak inbasio-fase horri bukaera eman zion. Guztira, 70.000 hildako baino gehiago izan ziren eta ehunka milaka errefuxiatu. **a**

Erredakzio taldea

47. DURANGOKO EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKA



www.liburudiskoazoka.eus

2012KO ABENDUAREN 6TIK 9RA



HOTEL
**KURU
TZIA
GA**



**erosotasuna
poztasuna
artea
gastronomia
paisaia**

Batzen diren tokian!

Kurutziaga Kalea, 52 - 48200 Durango Tel: 946 200 864 - E-mail: info@kurutziaga.net
www.kurutziaga.net



www.parrataberna.com
**Herriko plaza 2
Elorrio**



Astola 2007

- 04-** NUESTROS FOTÓGRAFOS LOCALES / JOSE MARI URIARTE **18-** ANDRAZKOAK DURANGALDEKO JAI ETA DANTZETAN / IÑAKI IRIGOEN **36-** LOBIANO, UN PALACIO EN ERMUA / ALBERTO SANTANA, IÑAKI PEREDA ETA DOLORES DEL MONTE **48-** EZKURDI, ESPACIO ARQUITECTÓNICO Y SOCIAL/ JON IRAZABAL AGIRRE **68-** AHT DURANGALDEAN ZEHAR **87-** IRAKASKUNTZA DURANGON XVIII. MENDEAN / IÑAKI BEITIA ETA ITXASNE SANGINES **100-** MOMOTIO / IÑAKI GARCIA CAMINO **116-** LA ARGIZAIOLA EN EL DURANGUESADO / RAKEL CILLA LÓPEZ **130-** ASTI / JESUS MARI ARRUBARRENA **140-** ABADIÑO OINEZ / JOSE INAZIO ARRIZABALAGA



Astola 2008

- 08-** SORGINKERIA DURANGOKO MERINDADEAN / IÑAKI BAZAN DIAZ **24-** GARAI, ATALAYA DE LOS ZUBIAURRE / REBECCA GUERRA **38-** "OTXANDIOen" LAN ABENTURA / ENRIQUETA SESMERO **52-** FUSILADOS DEL FRANQUISMO / JON IRAZABAL **70-** ELORRIO, UNA VILLA MEDIEVAL / DONA GIL **86-** DURANGOKO UDAL ARTXIBOA / JOSE ANGEL OROBIO-URRUTIA **98-** ROCK LOCAL / JUAN A. HERNANDEZ ETA IBAN GORRITI **114-** ARRIOLA, 20 URTE **128-** PORTAFOLIO / PABLO GARITAONANDIA **142-** ARDOA ETA ARRAINAREN IBILBIDEA / GUILLER RUIZ DE ERENTXUN



Astola 2009

- 12-** DE AVIONES Y MAIZALES / JOSE MARI URIARTE ASTARLOA **32-** URKIOLA, 20 URTE **52-** TIERRA DE DURANGO / GREGORIO MONREAL **68-** ETORKINAK, LOS NUEVOS VECINOS / XABIER AIERDI, JOSEBA ATXOTEKI **90-** EL CASTILLO DE ASTXIKI / ARMANDO LLAMOSAS **112-** DULTZAINA / JON GAMINDE **126-** FUNCOR / IÑIGO AGIRRE **138-** PELOTARIS / JOSE MARI ETXANIZ **152-** BARRUKO IBILBIDEAK **166-** PORTAFOLIO / LUIS MADINA



Astola 2010

- 12-** CRUZ DE KURUTZIAGA / JESÚS MUÑIZ PETRALANDA **28-** ARRAZOLAKO ETA AXPEKO MEATEGIAK / GARBIÑE AJA **40-** GAZTETXEAK / IBAN GORRITI / JAKUE PASCUAL **56-** BERTSOLARIAK 1950-60 / IGOR ELORTZA **66-** FUNDICIÓN / JULIÁN IZAGA **84-** ZINEMAGINTZA / J.J. BAKEDANO **96-** MARTIN DE BERATUA / JOSÉ ÁNGEL BARRIO LOZA **106-** OTXANDIOKO LIMITADUA / FERNANDO MARTINEZ RUEDA **118-** EL PALACIO ITURRI / IGOR BASTERRETSEA **126-** BARRUKO IBILBIDEAK **138-** BALNEARIO DE ZALDIBAR / MAGDALENA SARRIONANDIA **148-** MERIOAREN IBILBIDEA / JON IRAZABAL



Astola 2011

- 12-** LOS CABALLOS ROJOS DE ASKONDO / Diego GARATE MAIDAGAN / JOSEBA RIOS GARAIZAR **26-** DURANGOKO EMAKUMEEN KARTZELA / MARIA GOROSARRI **42-** ARRIA: LA ENERGÍA DE UN RÍO / MAITE IBAÑEZ **60-** DURANGALDEA 2027 / HAINBAT EGILE **80-** DURANGO: ESTACIÓN CENTRAL / JOSE MARI URIARTE **94-** ERREBONBILOAK: BOLBORA USAINA / KARLOS ERIZ **110-** PATRIMONIO EN PELIGRO / JON IRAZABAL **122-** BIZKAIKO ZUZENBIDE ZIBILA DURANGALDEAN / GONTZAL AIZPURUA **136-** PETROLEO EN ELORRIO / LOREA MADINA **148-** BARRUKO IBILBIDEAK **162-** ATXONDO: HIRURAK BAT / OIHANE BURUAGA DE SANCHA

OHAR BIBLIOGRAFIKOAK

- ¹ José Lerchundi, *Rudimentos de árabe vulgar que se habla en el imperio de Marruecos, con numerosos ejercicios y temas aplicados a la teoría*, Rivadeneira, Madrid, 1872.
- ² Jose Lerchundi, *Vocabulario español-arábigo del dialecto de Marruecos con gran número de voces usadas en Oriente y en bat ere erabiltzen dute: amazigh la Argelia*. Imprenta de la Misión Católico-Española, Tanger, 1892.
- ³ Ricardo Ruiz Orsatti, "Diccionario Español-Rifeño, por el P. Fr. Esteban Ibáñez", *Mauritania*, XVIII, 1944, 273 orrialdean.
- ⁴ Liburuak hiru edizio izan ditu:
 - P. Fr. Pedro Sarrionandia, *Gramática de la lengua rifeña*, Imprenta Hispano-Arábiga, Tánger, 1905. XX + 458 orrialde.
 - P. Fr. Pedro Sarrionandia, *Gramática de la lengua rifeña*, Imprenta Hispano-Arábiga, Tánger, 1925. XX + 455 orrialde.
 - P. H. Sarrionandia, *Gramática de la lengua rifeña*, Bellaterra, Barcelona, 2007. 39 + XX + 455 orrialde.
- ⁵ René Basset, "Sarrionandía: Grammaire de la langue Rifaine", *Revue critique d'histoire et de littérature*, 52, 1906-XII-31. 501 orrialdean eta hurrengoetan.
- ⁶ *Contestación del P. Pedro H. Sarrionandia a Mr. René Basset*. Imprenta Hispano-Arábiga de la Misión Católica, Tanger, 1907.
- ⁷ *Noticia sobre la lengua que se habla en el Rif, lengua aborigen de todo el Norte de Africa, por el Padre Fray Pedro H. Sarrionandia*. Tetuán, 1909. 8 orrialde.
- ⁸ P. Esteban Ibáñez, "El P. Sarrionandia y su labor filológica acerca del dialecto rifeño", *Mauritania*, 165, 1941-XI-2, 346-377; 166, 1941-XII-1, 375-377; 167, 1942-I-1, 21-23.
- ⁹ P. Esteban Ibáñez, "En torno a la obra de un Misionero franciscano: la lengua bereber y el dialecto rifeño", *Mauritania*, 1942 urteko orrialde hauetan atalka: 76-78; 106-109; 150-151; 179-180; 364-366; eta 1943ko orrialde hauetan: 46-47; 105-106; 166-167.
- ¹⁰ P. Esteban Ibáñez, OFM, "El P. Sarrionandia y el problema de la lingüística rifeño-bereber", *Verdad y Vida*, 1943, 226-229.
- P. Esteban Ibáñez, OFM, "Divergencias filológicas entre el árabe y el bereber", *Verdad y Vida*, 1943, 610-617.
- ¹¹ Fr. Esteban Ibáñez, OFM, *Diccionario Español-Rifeño*, Ediciones de la Revista Verdad y Vida, Madrid, 1944. XXXI + 440.
- ¹² Fidel de Lejarza, "Reseña del Diccionario español-rifeño publicado por E. Ibáñez", *Archivo Ibero-American*, 15, 1944, 488-491.
- ¹³ P. Esteban Ibáñez, OFM, "Labor filológica de un misionero franciscano: el P. Sarrionandia y la lingüística del Rif", *Africa*, 41, 1945, 17-20.
- P. Esteban Ibáñez, OFM, "Hace cincuenta años: la obra del Padre Lerchundi en Marruecos", *Africa*, 1946, 55-56.
- P. Esteban Ibáñez, OFM, "Mosaico lingüístico del Marruecos español". *Africa*, 1947, 52-53, 136-137.
- ¹⁴ P. Esteban Ibáñez, OFM, "Voces hispano-latinas en el dialecto rifeño", *Verdad y Vida*, 1947, 226-229.
- ¹⁵ P. Esteban Ibáñez, OFM, "El Padre Lerchundi, explorador marroquí y embajador espiritual de la cultura de España en África", *Archivos del Instituto de Estudios Africanos*, 1, 1947, 45-65.
- P. Esteban Ibáñez, OFM, "Acción española de los franciscanos en Marruecos: labor político-diplomática, benéfico-social y cultural-pedagógica", *Archivos del Instituto de Estudios Africanos*, 6, 1948, 3-23.
- ¹⁶ Fr. Esteban Ibáñez, OFM, *Diccionario Rifeño-Español (etimológico)*, Instituto de Estudios Africanos, Madrid, 1949. LXXIII + 367 orrialde.
- ¹⁷ Bi hiztegiaren erreseina egin zuen Wilhelm Gieseke ere: *Thesaurus*, VII, 1-2-3, 1951, 361-363.

- ¹⁸ Fr. Esteban Ibáñez, OFM, *Diccionario español-baaramani (dialecto bereber de Ifni)*, Instituto de Estudios Africanos, Madrid, 1954. XXXI + 335 orrialde.
- ¹⁹ Esteban Ibáñez, "El dialecto bereber del Rif", in *Mémorial André Basset*, Maisonneuve, Paris, 1957, 51-56. Esteban Ibáñez, "Supervivencia de voces latinas en el dialecto bereber del Rif", *Orbis*, 10, 1961, 447-455.
- ²⁰ Fr. Esteban Ibáñez OFM, *Diccionario español-senhayi (dialecto bereber de Senhaya de Srair)*, Instituto de Estudios Africanos, Madrid, 1959.
- ²¹ A. Renesio, *Études sur les dialectes berbères des Beni Iznassen, du Rif et des Senhaja de Sraïr: grammaire, textes et lexique*, Pihem, Paris, 1932.
- ²² [Francisco Aldegunde, coord.], *Misión Franciscana Española de Marruecos – Cien años de acción 1860-1959*, Tipográfica Hispano-Arábiga de la Misión Católica, Tánger, 1961.
- ²³ "El precioso y copioso fichero fue confiado por el Superior de la Misión al P. E. Ibáñez, lejano seguidor de las aficiones del P. Sarriónandia; y con una incomprendible ligereza y reprobable despreocupación, a la vez que se hacía desaparecer dicho fichero, se daba a luz el Diccionario Español-Rifeño (Madrid, 1944) sustituyendo el nombre del investigador y principal artífice por el del ordenador y corrector de pruebas. La Misión tiene que reprobar el desacato y lamentar la pérdida del fichero; quisiera guardarlo como joya preciosa junto a los apuntes del Vocabulario Español-Arábigo del P. Lerchundi.
- Es de esperar que, de proceder a otra edición, sea, al menos parcialmente, reparada la injusticia cometida en la primera y que el nombre del P. Sarriónandia anteceda al del seguidor y discípulo. ¡También en el orden intelectual es apodíctico el Unicuique suum!"
- ²⁴ Fr. Ignacio Berazaluce, O.R.T., "Unicuique suum?", *Verdad y Vida*, 78-79, 1962, 275-477. Ignacio Berazaluce izenordearen ostean, Patrocinio García Barriuso zegoen.
- ²⁵ J. L. Soto Pérez, "Un siglo de historia literaria 1862-1962: noticia bio-bibliográfica sobre los religiosos hijos del Colegio franciscano de Misiones de Santiago de Compostela", *Liceo Franciscano*, XV-XVI, 1962, 663-667.
- ²⁶ P. H. Sarriónandia & E. Ibáñez Robledo, *Diccionarios Español-Rifeño y Rifeño-Español*, Bellaterra, Barcelona, 2007. 111 + XXXI + 440 + LXXIII + 336 orrialde. Edizioa faksimilea da José Megías Aznar eta Vicente Moga Romeroren ardurapean. Aitzinean, Ramón Lourido Díaz, Vicente Moga Romero eta Mohand Tilmantine-ren saiakerak daude.
- ²⁷ Ramón Lourido Díaz, "El porqué de la reedición de los Diccionarios español-rifeño y rifeño-español bajo la doble autoría de Pedro H. Sarriónandia, como autor base, y Esteban Ibáñez, como recopilador-editor?".
- ²⁸ "El fichero del Diccionario Rifeño del Padre Sarriónandia (creo que escrito con caracteres árabes) fue totalmente quemado, en la huerta de la Misión de Nador, por el mismo P. Esteban Ibáñez, y delante del que esto firma y afirma [...]. Quemó igualmente varios cuadernos muy interesantes referentes a la Región del Rif. Toda esta imperdonable faena la hizo después de servirse de todo el material reunido por el P. Sarriónandia, y cuya traducción del fichero hizo o le ayudó a hacerla un ordenanza del Juzgado de Nador (El ordenanza era marroquí [...]) Lo único que se salvó de las llamas fue el cajón donde se conservó el fichero durante muchos años en poder del P. Benjamín Brazales que fue quien se lo entregó al P. Ibáñez para que lo editara..."
- ²⁹ "Al revisar y ordenar sus apuntes hemos podido apreciar que en no pocas fichas de términos bereberes anota el correspondiente término vascuence."
- Esteban Ibáñez, "La lengua bereber y el dialecto rifeño", *Mauritania*, 181 (1942), 364-366.
- ³⁰ Ramón Louridoren arabera, Tangerreko Artzapezpikutegiko Artxibategian, Sidi Bouabid kalean (lehengo San Francisco kalean), Pedro H. Sarriónandairen ia berrogei koaderno daude amazigerari buruz, gehi hamarren bat arabiera arruntari buruz. Materiala 12garren Sekzioan dago, CRM. 374garren kutxan: 'erdialdeko arriferari' buruzko koadernoak, 1 eta 6; 'xelhari' buruzko koadernoak, 2, 3, 4, 5, 7, 8, 9, 10, 11, 16, 53, 54, 55... 375garren kutxan: 'suserari' buruz, 13, 14, 15, 17, 47, 48; 'suserazko' liburu bat arabiar grafiaz, 19; arabiar grafiazko koadernoak, 7, 20, 21, 22, 24, 25, 26, 27; grafia latinozk o koaderno, 46. 376garren kutxan: arabiera arruntari buruzko koadernoak, 6, 7, 8, 9, 11, 16... 389garren kutxan: 'xelha' ariketak arabiar grafiaz. 390garren kutxan: 'xelhari' eta arabiera arruntari buruzko apunteak. 391garren kutxan: apunteak, izendegia eta Sus aldearen mapak.



Gerediaga elkartea

47 urte Durangaldearen alde lanean

Mila esker 2012. urtean gure lanean laguntzaile izan zareten guztiei,
berezi bazi kide eta bazi kide babesle diren udalei: Abadiño, Atxondo, Berriz,
Durango, Elorrio, Garai, Iurreta, Mañaria, Otxandio eta Zaldibar.

Hurrengora!
arte!



Durangaldeko Adiskideen



bbk=



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

